

Euskararen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik

Paula Kasares

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

paula.kasares@unavarra.es

Sarrera-data: 2011-10-23 | Onartze-data: 2012-01-15

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien IV. edizioko lehen saria (2011)

Laburpena. Artikulu honek hizkuntza ordezkatze prozesuan amilduta zegoen Irurita (Baztan, Nafarroa) herrian azken berrogei urteotan haurrak euskaldun haztearen aldera gertatutako aldaketa aztertu du. Horretarako, egilea hizkuntza sozializazioaren gaineko teoriak baliatu da. Sozializazio kontzeptuak gizarte erreproduzioaren eta transmisioaren ikusmolde ohikoek ikusezin utzitako hainbat alderdiri eta horien arteko elkarreaginari erreparatzeko bide ematen du. Landa ikerketak berretsi duenez, hizkuntza sozializazioa prozesu holistikoa da, familiara mugatzen ez dena; dinamikoa eta baldintza soziohistorikoei lotua, ez mekanikoa; elkarreagilea, ez norabide bakarrekoa; malgua eta denboran aldakorra, ez monolitikoa. Haurren euskarazko sozializazioa elkarri lotutako bi ardatzetan funtsatzen da: belaunaldien arteko elkarreaginetan (familiar batik bat) eta adinkideen arteko harreman eszentrikoetan (familiaratik kanpo batez ere). • **Hitz-gakoak:** hizkuntza sozializazioa, transmisioa, hizkuntza iraupena, berretxekotzea, Nafarroa.

Abstract. **The continuation of Basque from generation to generation from the language socialization paradigm .** This paper examines the change that has taken place over the last forty years to encourage children to be brought up as Basque speakers in the town of Irurita (Baztan area of Navarre), which was immersed in a language replacement process. For this purpose the author has made use of the theory of language socialization. The concept socialization opens up a way of raising awareness about many aspects and the interaction between them that the usual ways of seeing social reproduction and transmission have rendered invisible. As the field work has confirmed, language socialization is a holistic process and one that is not restricted to the family; it is dynamic and linked to socio-historical conditions, it is not mechanical; it is interactive, not unidirectional; it is flexible and changeable in time, not monolithic. Infant socialization in the Basque language is based on two interconnected hubs: inter-generational interactions (in the family above all), and excentric relationships between peers (outside the family especially).

• **Key words:** language socialization, transmission, language maintenance, revernacularisation, Navarre.

Denbora joan ahala erabilera esparruak eta hiztunak galdu eta horregatik beren jarraipena arriskuan izatera iritsi diren hizkuntzek ez dute batere erraza izaten gizaldien arteko etena berriz estekatzea —hau da, belau-naldi berriak mintzaira horretan sozializatuko direla ziurtatzea—, hizkuntza horien aldeko politika, jarduerak eta baliabideak izanda ere. Azken urteotako ikerketa batzuek (Williamson 1991, Ó Riágain 2001) hainbat hizkuntza gutxituren familia bidezko transmisioaren eta auzo-komunitate hurbileko erabileraren ahulezia indartzeko zailtasunak agerian utzi dituzte. Izan ere, egun mundu mailako arazo bihurtu da hiztun talde anitzen belaunik belauneko jarraipena bermatu ahal izatea (Nelde et al. 1996, Martí et al. 2005) eta euskarak ere horretan du premiazko erronka.

Lan honetan hizkuntza ordezkatzeko prozesuan amilduta zegoen herri batean azken berrogei urteotan haurrak euskaldun haztearen aldera gertatutako aldaketa aztertuko dut. Prozesu horren baldintzak arakatu eta hiztun belaualdien segida berriz uztartzea ahalbidetu duten elementuak ezagutzea dut xede. Horretarako, gurean erabili ez den hizkuntza sozializazioaren gaineko teoriak baliatuko naiz. Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztertzeko paradigma berri baten baliagarritasuna probatzea interesgarria zaigu ikerketa soziolinguistikoan eta hizkuntza plangintzan aritzen garenoi.

1970ean José M^a Sánchez Carrión, *Txepetx*, gazteak Nafarroako Mendialdean barna landa ikerlana egin zuelarik honela idatzi zuen Iruritan (Baztan) atzemandako egoeraz:

Los individuos de 30 años en adelante todavía suelen conocer el vasco (pues la castellanización proviene de 30 años acá), pero aún entre ellos se abre paso una mayor utilización del castellano. Más jóvenes, aunque alguno no lo entienda [sic], no lo suelen saber hablar. No se les enseña a los niños en el hogar. Quedan vascófonos exclusivos en sujetos de una edad muy avanzada (...) en una regresión que ya no se detendrá, entre los restantes iruritaras (Sánchez Carrión 1972: 117-118).

Berrogei urteren buruan, aldiz, euskararen bilakaera ez da joan Txepetxek iragarri zuen galbidetik. Hizkuntza atxiki eta ordezkatzeko (*language maintenance and shift*, Fishman 1964) arloan jorrotutako ikerketa ugari gorabehera, oraindik ez dago hiztun taldeek beren mintzairari eustearren gaineko benetako teoria osorik. Hala bada, halako iragarpenak egitea zaila izaten da.

Sánchez Carrionek Iruritan euskararen galera itzuli ezintzat eman zuen, —“una regresión que ya no se detendrá”— eta, ziurrenik, 1935ean

**Hortaz, ikerlanak
galdera honi
erantzun nahi
dio: zertan datza
Iruritako
euskararen
belaunez
belauneko
jarraipenaren
sendotzea, bertze
hainbat
hizkuntza
komunitate
gutxituk ezin
berma
dezaketena?**

Irigarayk (1956) haurrak euskaraz aritzen ez ziren herrietan dokumentatu zuen egoera hiru hamarkadaren buruan nola bilakatu zen aztertuta, Iruritako familiek haurrei euskaraz egiten ez zietela ikusi eta euskararen desagertzea iragarri zuen, zalantzarik gabe. Txepetxek atzemandako hizkuntza egoerak mintzaira ordezkapena gertatzen ari zela pentsatzeko bide ematen zuten alderdi anitz zeuden: hizkuntza erabilera sozialean gaztelaniak ordura artio euskarak zuen lekua hartu izana (karrikan ez ezik, baita etxeetan ere), gazteen artean euskara ez erabiltzea, gaztelaniak egoera formaletako eta prestigiodunetako komunikazio funtzioak hartuak izatea eta euskaraz egiten zuten hiztunak gutxietea ohikoa izatea... Egoera soziolinguistikoaren alderdi adierazgarri horiek guztiak aski argiak izanik ere, Sánchez Carrionendako guraso elebidunek seme-alabei euskaraz ez egitea izanzen zen, segur aski, elementurik salagarriena Iruritako euskara ordezkapen prozesuaren azken urratsetan zegoela ondorioztatzeko: “No se les enseña a los niños en el hogar”. Izan ere, hiztun talde bateko zenbat haurrek ikasten duten hizkuntza hartu izan dute ikertzaileek mintzairaren galtzeko arriskua zehazteko irizpide nagusitako (UNESCO 2003). Fasoldek (1995: 241) argi adierazten du: “Of course, an unmistakable sign of the final stages of shift is when bilingual parents pass on only the new language to their children”.

Halere, lau hamarkada igarota, euskara bizirik da Iruritan: euskaraz, gutxi-asko, aditzen da herrian, euskaraz egiten ohi diete gurasoek haurrei eta euskaraz aritzen dira neska-mutikoak beren artean jostetan. Berrogei urteotan euskararen egoera (hizkuntzaren estatusa, euskarazko irakaskuntza...) moldatu duten aldaketa handiak gertatu dira baina horiekin batera —eta ikerketa honetarako interesgarriena dena— iruritarren belaunaldi bat izan da deliberatu duena bere seme-alabak euskaraz haztea, nahiz eta mintzaira hori guraso horien gehienek lehen hizkuntza ez izan.

Hortaz, ikerlanak galdera honi erantzun nahi dio: zertan datza Iruritako euskararen belaunez belauneko jarraipenaren sendotzea, bertze hainbat hizkuntza komunitate gutxituk ezin berma dezaketena?

1. HIZKUNTZA GUTXITUEN JARRAIPENA LITERATURA SOZIOANTROPOLOGIKOAN

I

Hizkuntzari irauarazte eta hizkuntza ordezkapen ikerketa arloan gutxi dira mintzaira atxikitzea eta beraz, belaunaldi berrien hizkuntza sozializazio baldintzak bermatzea erdietsi duten hizkuntza gutxituen komunitateen adibideak. Fasoldek (1995: 227) nabarmendu bezala, ikertzaileen interesa ez ohi da hizkuntza gutxituen atxikitzeko gertakarietara zu-

zendu (migratutako taldeen kasuan izan ezik) eta hizkuntza horiei irau-narazteko ahalegin eta estrategia sozialak maiz ikusezinak izan dira gi-zarte zientzien literaturarako. Ikertzaileek *tradizioaren irautea* ikusi ohi dute, ez *tradizioari eustea* edo *tradizioari irauñaraztea*, Fishmanek (1997: 389) ohartarazi duenez.

Mintzairaren belaunez belauneko jarraipena hizkuntzaren iraupe-naren oinarrian dago eta komunitatearen nahiak bermatzen du: “In lan-guage *maintenance*, the community collectively decides to continue using the language or languages it has traditionally used” (Fasold 1995: 213). Finean, hizkuntzak bizirik irautea edo mintzaira galtzea hitzunen hautuen emaitza da (Fishman 2000: 93); hau da, norbanakoen hizkuntza-hautu eredu koherenteek epe luzera ekar ditzaketen ondorio sozialak (Fasold 1995: 213, 239). Euskararen historia soziolinguistikoan ere ideia hori narbarmendu da: “Hizkuntzaren bilakabideen erdigunean hitzunek, banaka nahiz taldeka, egiten dituzten hautapenak daude” (Erize 1997: 130). Beraz, hizkuntzari eutsi eta hizkuntza ordezkatzeko prozesu horietan dago txer-tatuta mintzairaren ondorengoenganatzea, hitzunen hautu gisa.

Hizkuntza atxiki eta galtzeko gertaerak ikermolde desberdinetatik aztertu dira, ikuspegi soziologikotik eta antropologikotik batik bat (Fa-sold 1995). Soziologo eta soziolinguistek ikerketa kuantitatiboak nahiago izan dituzte eta zentsu-errolda eta inkestetako datu estatistikoetan oi-narritu ohi dira (Fishman 1964 eta 2000, kasurako). Hizkuntza gutxituen jarraipena aztertzeko soziologiaren azterbide makro eta kuantitatibotik egindako ikerlanak usuak dira, adibidez: MacKinnon & MacDonald (1980), Vila (1993), H. M. Jones (1995, 2008) eta Nelde et al. (1996). Halere, zenbait egilek (Appel & Muysken 1996: 35-43) deterministatza-jo dituzte ikusmolde makrosoziologikotik, eta bereziki *domain* eta *di-glossia* kontzeptuetatik, eratutako ereduak.

Hizkuntzari eustea eta hizkuntza ordezkapena ikerbide kualitati-botik jorratu duten lanen artean ikuspegi antropologikoa da sakontasun handiena erdietsi duena. Azterbide hori jorratu duten ikertzaileendako hitzunen hautuek beren kultura balioak islatzen dituzte eta hautu horiek hizkuntzaren irauteari edo galtzeari eragiten diote. Ikermolde horretan jardun dutenen artean Gal (1979) eta Dorian (1981) dira aipagarriak.

Gurean, euskararen transmisioa batik-bat metodologia soziologikoaz egindako ikerketa eskala handiko (makro) eta, eskuarki, kuantitatiboen bidez aztertu izan da, adibidez: Larrañaga (1986), Siadeco (1994a, 1994b), Zinkunegi (1995), Arruti (1997), Eusko Jaurlaritza (2005a, 2005b, 2008), Sagardoy (2008) eta Zalbide (2009). Ikerketa molde horrek guraso eus-kaldunek beren ondorengoei euskara transmititzean izan duten joera

**Mintzairaren
belaunez
belauneko
jarraipena
hizkuntzaren
iraupenaren
oinarrian dago
eta
komunitatearen
nahiak
bermatzen du.**

**Gurasoek
haurren
hizkuntza
jarduerak eta
jarrerak eratzten
dituzte, baina
familiaren
“hizkuntza
ekologian”
haurrak
eragileak dira,
objektuak baino
gehiago.**

itxuratzen zenbait datu kuantitatibo eman ditu, datu horiek zenbait aldagairekin (gurasoen hizkuntza gaitasunarekin edota bizitokiko ezau-garri soziolinguistikoekin) gurutzatu dituzte baina, oro har, datu kuantitatibo horietaz gain, euskaraz hazteari lotutako bertzelako azalpen kualitatiborik ez dute adierazi. Hizkuntza transmisioaren gaineko azterketetan kontzeptuaren bi maila edo bide bereizi izan dira: transmisio informala, familia bidezkoa, eta transmisio formala, irakaskuntza bidezkoa (Zinkunegi 1995: 76). Oro har, ikerketek —eta bereziki kuantitatiboek— hizkuntza transmisioaren bi bideei bereiz heldu ohi diete, biak uztarturik edo elkarreraginean aztertzeko joerarik izan ez dela.

Ikerketa mikro-kualitatiboak urriagoak dira. Ikusmolde kualitatiboa estreinako aldiz erabili zuten lanak Sánchez Carrionenak (1972, 1981) ditugu. Aztergaia euskararen transmisioa zehazki ez bazuten ere, gaia ordura artio landua ez zen modu kualitatibo eta sakonean jorratu zuten. Ondotik, interesa euskararen transmisioan —bete-betean ala hein batean bederen— paratu duten azterketa kualitatibo hauek egin dira, nik dakidala: Sanchez Carrión (1987, lan teorikoa), Erize (1997), Iraola (2002) eta, bereziki, Hernández García (2007), azken hori gure artean egiteke zegoen euskararen transmisioaren azterketa semiotikoa.

Azken urteotan euskararen transmisioari heltzeko hitzunen subjektibotasuna lantzea proposatzen duen ikusmoldea hasi da garatzen gure artean. Euskararen familia transmisioaren arloan berriki egin diren azterketa eta esku hartzeko programek emozioen garrantzia nabarmendu dute (Jauregi & Suberbiola 2009, Elortza et al. 2009). Funtsean, gizataldeetako kideen arteko harreman samurren eremuan sortu zen hizkuntza eta horri atxikirik darraio egun, milioika urte geroago (Jauregi 2009).

2. HIZKUNTZAREN JARRAIPENARI BEHATZEKO PARADIGMA BERRIA

I

Aurreko atalean azaldu bezala, ikertzaileek hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena edo ondorengoenganatzea ikuspegi eta diziplina desberdinen azpian, bai eta kontzeptu desberdinen kategorizaziopean ere, aztertu dute. Literatura soziolinguistikoan eta erakunde publikoen nahiz hizkuntza plangintzagileen diskurtsoetan *language transfer* eta *transmission* (Fishman 1997), bai eta *reproduction* ere (Nelde et al. 1996, Ó Riagáin 2001) erabiltzeko joera izan da¹.

Ikerketa honetarako ordean, bereziki interesgarritzat deritzot 1980ko hamarkadaren erdialdean Estatu Batuetako zenbait hizkuntzalari eta antropologo garatzen hasi ziren *language socialization* ikerketa arloari

(Schieffelin & Ochs 1986, Ochs & Schieffelin 1992 eta 2008, Garrett & Baquedano-López 2002, Pease-Álvarez 2003, Luykx 2003 eta Kulick 2004, bertzeak bertze).

Hizkuntza sozializazioak honako hauei begiratzen die: nola diren haurrak sozializatuak hizkuntzaren erabileraren bidez eta nola diren sozializatuak hizkuntza erabiltzeko. Hau da: “Language socialization (...) focuses on how children are socialized through the use of language as well as how children are socialized to use language” (Schieffelin & Ochs 1986: 184). Paradigma horretan hizkuntza sozializazioa prozesu dinamiko, elkarrenergilea, bizitza osoan barnakoa eta inguruneari lotua da.

Hizkuntza sozializazioaren izaera elkarrenergileak *transfer* edo *transmission* ideia, hau da ohiko kontzeptu horien baitan dagoen goitik beheitiko eta norabide bakarreko (gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana) prozesua izatearen adiera gainditzen du. Haur txikiak ez dira balizko transmisio baten jasotzaile pasibo hutsak. Umeez ere beren familiako kide helduak sozializatzeko ahalmena dute (ibid.) eta, berez, prozesua norabide biko da (*bidirectionality in socialization*, Garrett & Baquedano-López 2002: 346). Ikermolde honetan haurren hizkuntza sozializazioa norabide bakarreko prozesutako ikusi beharrean, erabilgarriagoa da familiaren elkarrenerginen sare dinamiko gisa ikustea. Izan ere, gurasoek haurren hizkuntza jarduerak eta jarrerak eratzen dituzte, baina familiaren “hizkuntza ekologian” haurrak eragileak dira, objektuak baino gehiago: “For this reason, socialization should be viewed in terms of ‘participation’, rather than merely ‘transmission’” (Luykx 2003: 41).

Hizkuntza sozializazioaren arloan egindako estreinako ikerketek hizkuntzaz jabetzea eta hizkuntzaren bidezko sozializazioa bi prozesu berezitat hartu ohi dituen ikuspegia kritikatu zuten, bi gertakarien artean dagoen lotura estua agerian utziz (Ochs & Schieffelin 1992). Hala eta guztiz ere, sozializazioak ez dakar jokabide eredu finkorik. Ikuspegi honek gizakiak malgutzat eta gizarte eta hizkuntza aldaketara egokitzeko gaitzat hartzen ditu. Beraz, egile horiendako sozializazioa ez da prozesu mekaniko determinatua gizon-emakumeak aldaketetarako gai baitira. Ildo horretatik, sozializazio kontzeptuak egitura sozialen *erreprodukzio* (edo *ugalketa*) hutsaren ideia gainditu eta ingurura doitzeko prozesuan gerta daitezkeen *desbideratzeak* ere kontuan hartzeko bide ematen du. Hori horrela, ikertzaileek ohartarazi bezala, hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloak jarraipen eta aldaketa soziokulturala, biak, ditu aztergai: “The language socialization paradigm offers a socioculturally informed analysis of life course and historical continuity and transformation” (Ochs & Schieffelin 2008: 11).

**Haurrek
hizkuntza —
kodea— ez ezik
hizkuntza
erabiltzeko arau
sozialak,
hizkuntzen
arteko
hierarkia... ere
barneratzen
dituzte.**

**Hizkuntza
ordezkapen eta
berreskurapen
prozesuak
aztertzeko
bereziki
baliagarriak dira
glotobiografiak.**

Hizkuntza erabiltzeko sozializazioaren arloan ikertzaileek aztertu izan dutena da haurrek zer nolako hizkuntza jokaera dituzten beharrezkoak eguneroko gizarte bizitzan egoki parte hartzeko. Azterketa horiek gizarte eremuetan (etxean, eskolan, erlijio jardueretan, aisialdian...) dauden hizkuntza jokaera egokiari dagozkion espektatiben jarraipena eta etena (*continuity and discontinuity*) nabarmendu dituzte (Schieffelin & Ochs 1986, Garrett & Baquedano-López 2002). Hau da, haurrak hizkuntzaren erabilerarako arauz jabetzen dira hizkuntza gizarte jardueretan nola erabiltzen den ikusita eta egoera horietan parte hartuta: “Children acquiring language acquire knowledge of the language or languages in their sociolinguistic environment” (Schieffelin & Ochs 1986: 171). Beraz, haurrek hizkuntza —kodea— ez ezik hizkuntza erabiltzeko arau sozialak, hizkuntzen arteko hierarkia eta halakoak ere barneratzen dituzte. Sozializazio elebiduna izan duten haurrek bi hizkuntzak ikastearekin batera bi kodeak nola erabili, non, norekin eta zertarako, bi kodeak noiz bereizi eta noiz nahasi ere ikasten dute (Luykx 2003: 41).

Hizkuntza sozializazioaren gaineko ikerketek egin duten ekarpen handienetako bat eguneroko bizitzari aitortu dioten garrantzia da: “... everyday life —the mundane activities and interactions in which ordinary individuals participate, constituting the warp and woof of human sociality” (Garrett & Baquedano-López 2002: 343). Eguneroko solasaldi arruntak hizkuntza jarduera gisa ikusteak bide ematen du mintzaira errutinei erreparatzeko. Azken finean, sozializazio prozesuan helduek haurrari eguneroko hizkuntza jardueretan (errutinetan) parte harrarazten diote (Schieffelin & Ochs 1986).

Bertzalde, hizkuntza sozializazioaren paradigmak ekarpen funtsezkoa egin du norbanakoaren, taldearen eta gizarte antolaketa arteko harremana aztertzeko, ikusmolde mekaniko, determinista edo tira-bira eta gatazkarik gabekoa gaindituz: “A significant contribution of the language socialization paradigm has been its problematization of the relationship among the individual, the group, and the social order” (Garrett & Baquedano-López 2002: 352). Ingurune elebidun edo eleanizetan etnia, kultura identitate, moral eta nortasun kontzeptuek eragiten diote hizkuntza sozializazioari. Komunitateak (berr)eratzten eta (ber)definitzen dira eta hizkuntza sozializazioa ikertzen dutenek aztertzen dutena da norbanakoek nola berresten eta negoziatzen dituzten beren identitateak, batzuetan aldakorrek direnak, ingurune heterogeneo horietan (ibid.).

Hizkuntza sozializazioa ez da monolitikoa, ez eta molde unibertsalekoa ere, eta erabilera ez homogeneoa izaten du bere barnean. Gainera, hizkuntza erabilera ereduak denboran alda daitezke zenbait faktoreren

arabera. Gurasoek hautatu egiten dute seme-alabei zein hizkuntza transmititu baina aita-amek hautu hori, behin —haurra sortzen delarik— ez ezik, gehiagotan ere egin dezakete seme-alaben umezaro eta haurtzaroan (Chisp 2005).

Azken batean, hizkuntza sozializazioa momentu-testuinguru zehatzari dagokio. Hau da, hizkuntza(ar)en pertzepzioa edo hizkuntzen banaketa soziala bezalako faktoreen arabera da. Jendeak hizkuntzaren gainean dituen ideiek jendearen hizkuntza jokamoldeei eragiten diete. Baina hizkuntzaren gaineko ideiak —hau da, hizkuntza bera zer den eta kultura identitatearekin eta norbanakoaren identitatearekin zer harreman duen— komunitateen artean ez ezik komunitate bakar baten barnean ere alda daitezke (Garrett & Baquedano-López 2002: 354-355).

Hala bada, hizkuntza sozializazioak subjektuen historiari begiratzendio, sozializazio elkarreraginaren azpian dauden ideologiak eta botere harremanak atzeman nahian. Hizkuntza jokabidearen eta kultura ideologiaren arteko harremana aztertzeke, ikerketa arlo honek teknika etnografikoa izaten du oinarri eta behaketa eta elkarrekintzak batik bat etxe-familia inguruan egiten badira ere, ez dira etxe barrenera, ez eta etxekoen arteko eguneroko elkarreraginetara ere mugatzen. Ikerlanak iraupen luzeko azterketak izaten dira eta kultura arteko konparazioa izaten dute xede.

Hizkuntza sozializazioaren paradigmak mintzairaren belaunez belauneko jarraipena aztertzeke sakontasun handia ahalbidetzen badu ere, ez du Europako hizkuntza gutxituen ikerketarako oihartzun handirik izan (Morris & K. Jones 2008: 127). Europan bakan batzuk baizik ez dira arlo horretako ikerlanak, erraterako: Fellin (2002) eta, bereziki, Morris (2005).

3. METODOLOGIA

Aztertu nahi dudana gertakariaren gaineko ikerketek erakutsi dutenez, funtsaren funtsean, hizkuntzaren jarraipenaren eta galtzearen arrazoiak, askotarikoak izanda ere, hiztunen eguneroko elkarrekintzetan daude sustraituak eta horietan aurkitu behar dira. Maila horretan hiztunen portaerak eta motibazioak baititut aztergai, ikerketa kualitatiboa diseinatu dut, kasu azterketa batean (Iruritan) oinarritua.

Kasu azterketa ikerketa enpirikoa da, egungo gertakari bat bizitza errealeko bere testuinguruan aztertzen duena. Kasu ikerketan gertakariaren eta testuinguruaren arteko mugak ez dira agerikoak eta informazio iturri askotarikoak erabil daitezke (Yin 1984: 23). Elebitasun egoerarako hurbilpen etnosoziolinguistikoa kasu azterketen baliagarritasuna fro-

**Gerra Zibilaren
ondotik
sortutako
karririkakumeen
artean txikitan
euskaraz
sozializatu ez
ziren eta,
ondorioz,
hizkuntza
ikastera iritsi ez
ziren lehen
iruritarrek
ditugu.**

gatuta dago datu makrosoziolinguistikoak eta mikrosoziolinguistikoak ikusmolde sistemiko global batean uztartzea ahalbidetzen baitute (Blanchet 2000: 33).

Irurita Baztan (Nafarroa Garaia) udalerriko hamabortz herrietako bat da, Elizondorekin batera XX. mendean euskararen gizarte galerarik handiena izan duena. Iruritan azken berrogei urteotan hizkuntza sozializazioan zer aldaketa gertatu diren ikertzeko familia hartu dut azterketa unitatetzat. Familien lagina osatzeko irizpideak *homogeneotasuna* eta *egokiera estrategikoa* izan dira. Homogeneotasunaren arabera, familiek baldintza hau bete dute: hamabi urte bitarteko seme-alabaren bat duten gurasoak izatea. Egokiera estrategikoari dagokionez, ikerketaren aldagai-ardatza familia kideen hizkuntza gaitasuna izan da. Horren arabera familien hiru hizkuntza tipologia bereizi ditut: *familia euskaldunbeteak*, belaunaldi guztietan kide euskaldunez osatuak; *familia euskaldun ez osoak*, belaunaldi desberdinetan kide euskaldunez eta erdaldunez osatuak; eta *familia euskaldun berrituak*, kide euskaldunak azkeneko belaunaldian bai-zik ez dituztenak. Ezein sailkapen hiztunen heterogeneotasuna biltzeko asebetegarria ez bada ere, tipologiek aniztasuna antolatzeke eta *continuumak* atzemateko sistematizazioa eskaintzen dute.

Iruritako herriko eskolan ikasten duten haurren familien hizkuntza tipologia kontuan hartuta hautatu dut hamar familiako lagina: bi *familia euskaldunbete* eta zortzi *familia euskaldun ez oso*.

Datuak biltzeko tekniken aldetik, ikerketa honek metodologia etnografikoa du oinarri. Ikerketarako informazioa eskuratzeko *estrategia de la triangulación* delakoaz baliatu naiz (Valles 1997: 99-101). Hau da, azterbide desberdinak barnebiltzen dituen ikerketa estrategia erabili dut: dokumentazio iturriak arakatu eta lehen mailako informazio kualitatiboa eskuratu berriemaileekin izan ditudan elkarrekintzen eta behaketen bidez. Lehen mailako datuak eskuratzeko teknika etnografikoez baliatu naiz:

– *Elkarrizketa sakonak*, gidatu samarrak, berriemaile adituengandik ikerketaren zenbait arlo zehatzen gaineko informazioa erdiestera zuzenduak.

– *Behaketa zuzena* gurasoen eta haurren arteko hizkuntza portaerak, helduen artekoak eta haurren artekoak aztertzeke. Gehienetan leku publikoetan eginak.

– *Glotobiografiak* edo hizkuntza ardatza duten narrazio biografikoak familietako berriemaileekin izandako elkarrekintzetan bilduak. Familia bakoitzeko kide baten narrazio biografikoaren bidez edo kide

gehiagoren narrazio biografikoen josketa-lana eginez aztertutako hamar familien hizkuntza-historiak edo *glotohistoriak* osatu ditut, bai eta horien adierazpen grafikoa ere, *glotohistoriogramak*.

Ikerketak hartzen duen garaian hizkuntza ordezkapen prozesu historikoa irauli da eta horrek bere isla izan du maila kolektiboan ez ezik norbanakoen biografietan eta familien historietan ere. Hizkuntza ordezkapen eta berreskurapen prozesuak aztertzeke bereziki baliagarriak dira glotobiografiak. Teknika etnografiko nahiko ezezaguna baita gure artean, horren azalpen xume bat eginen dut bizitza-historia teknika kualitatibotik abiatuta. Ikerketa sozioantropologikoetan bizitza-historia teknika etnografikoa usu erabili ohi da. Hainbat ikertzaile bat heldu dira bizitza-historia teknika kualitatiboaren baliagarritasunaz elebitasunaren bizipenak ezagutzeko (Wei & Moyer 2008: 165). Bizitza-historiaren bidez ikertzaileak aztertzen dituen gizon-emakumeek beren bizitzari ematen dioten zentzua eta beren bizitzan garrantzitsua edo adierazgarria izan dena ezagutu nahi du. Metodo narratibo-biografikoan oinarrituta, Jiří Nekvapil ikertzaileak *language biography* teknika landu du, honela definiturik: "... a biographical account in which the narrator makes the language, or rather languages, the topic of his or her narrative—in particular the issue of how language was acquired and how it was used" (Nekvapil 2003: 63). Elkarrizketa egituragabea izaten da eta, kontaketa biografikoa den aldetik, metodo egokia zaigu ikerketa diakronikoa egiteko, azken hiru belaunaldiak (*ego* edo berriemailea bera, haren seme-alabak eta gurasoak) hartu eta haien bizi esperientziak biltzea ahalbidetzen baitu. Nekvapilek hizkuntza biografiek komunitatearen historia irudikatzeko duten balioa defendatzen du. Hala bada, norbanakoen hizkuntza biografietatik komunitatearen hizkuntza biografia tipoa osa liteke. Nekvapilek hizkuntza biografiak benetako metodo soziolinguistikotzat hartzen ditu, teknika bereziki baliagarritzat hizkuntzen azterketa historiko-diakronikoa egiteko: "... language biographies are particularly useful for language-historical and diachronic research" (ibid.: 64). Halere, orain artio egoera elebidunen inguruko ikerketetan hizkuntza biografiak oso gutxi erabili izan dira.

4. EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOA IRURITAN 1970ETIK 2010ERA

I

Atal honetan Iruritako kasu azterketan bildutako datu eta lekukotasunik esanguratsuenak² azaldu eta eztabaidatuko ditut.

**Mintzaira aldetik
familia den
gizarte gune
askotariko
horretan
batzuetan
hizkuntza
elkarbizitza
formulak adostu
behar izan dira,
hizkuntza
heterogeneotasuna
nolabait kudeatu
beharrez.**

Kokapena eta zenbait zertzelada historiko eta soziolinguistiko

Irurita Baztango udalerrian dago eta haran horretako hamabortz herri-tako bat da. Baztanek Nafarroako iparraldeko 377 kilometro koadro hartzen ditu eta Iruñetik Dantxarineko mugaraino doan N-121-A-B errepideak zeharkatzen du hegotik iparrera. Errepide nagusi horretako 47. kilometroan Irurita dago, Elizondotik hiru kilometrotara.

Egun Elizondoren ondotik, Irurita Baztango herririk jendetsuena da (850 bat biztanle) bai eta erdaldunduenetako bat ere (% 80 inguru euskaldun). Herriak bi populazio gune aski bereziak ditu: herrigunea eta baserriak.

1726-1727ko Apeotik (Otondo 2003: 127-130) ondoriozta daitekeenez, XVIII. mendean iruritar gehienak euskaldun hutsak ziren. XIX. mendearen lehen herenean Pedro Antonio Añibarrok, predikazioa egitera begira, Irurita euskaldun *itxiak* ziren herri zerrendan sartu zuen (Zenbaiten artean 1960, 1. lib.: 44-60). XX. mendearen hasmentan Irurita hasi zen nabaritzen Elizondotik Iruñerako errepidearen eraginak. Garai horretan posta zerbitzua zegoen astean hirutan, askotariko industriak, lantegiak bai eta guardia zibilen eta karabiniereen etxeak ere (Gran Enciclopedia Navarra 1990: VI. lib., 201-204). Horrekin guztiarekin batera erdara indarra hartzen hasi zen karrikan.

Iruritako historia soziolinguistikoan herriguneak eta baserriak bereizi behar dira XX. mendearen lehen hamarkadetatik bi bilakabide erabat desberdinak izan baitituzte karrikak eta bordek. Errekako bordetako iruritarrek egun artio euskara atxiki dute; herrigunean aldiz, euskara ia desagertu zen, gaztelaniak karriketako bizitza sozialeko harreman formal nahiz informaletan ez ezik, etxeen barnean ere lekua hartu baitzuen. Dirudienez, herriguneak XX. mendearen hirugarren hamarkada bitartean euskaldun izateari eutsi zion. Gerra Zibilaren ondotik sortutako karrikakumeen artean txikitari euskaraz sozializatu ez ziren eta, ondorioz, hizkuntza ikastera iritsi ez ziren lehen iruritarrek ditugu. Horiek dira oraingo haurren aitona-amonak. Bien artean neska-mutikoan aita-amak, herrigunean erdaraz sozializatu zen iruritarren belaunaldia.

Iruritako familiak, heterogeneotasuna etxean

Iruritako familien glotohistoriak³ (FG) osaturik herriko familien hizkuntza tipologia aztertu ahal izan dut. Familien glotohistorietan lau belaunaldiren gaineko hizkuntza-informazioa bildu dut: berraitatxi-amatxik, aitatxi-amatxik, aita-amak eta seme-alabak. Glotohistoriak osatzeko nire berriemaile gehienak aita-amak (1970 aldera sortuak) izan baitira, horiei *ego belaunaldia* deitu diet.

Hiztunak hizkuntzaren ezagutzaren *continuum* batean daude eta gaitasun eta jardun oso desberdinekoak izaten dira. Ez hizkuntza gaitasuna ez eta erabilera ere ez da balio absolutuko irizpidea, maiz mailakatzen zaila gertatzen den gertaera baizik. Horregatik, zenbait kasutan hiztun motak bereiztea ez da erraza izan.

Iruritan hizkuntza aldetik oso bertzelakoak diren familiak kausitu ditut. *Familia euskaldunbeteak*, herri oso euskaldunetatik at hagitz urriak izaten direnak, bakar batzuk baizik ez dira herrigunean. Errekako base-rietan aldiz, bertzelakoa izan baita euskararen gizarte indarra eta historikoki ez baitu belaunez belauneko jarraipenean etendurarik izan, horixe da familia tipologia usua. Nik aztertutako hamar familietatik bi dira euskaldunbeteak, bat errekakoa (1. FG) eta bertzea herrigunekoa (2. FG).

Familia euskaldun ez osoak arruntenak dira herrian. Izan ere, azken belaunaldietan euskararen hiztun galera (eta berreskurapen) prozesu historikoa izan duten herrietako familietan hizkuntza transmisioaren etendurak atzematen dira, hau da, umetan euskaraz aski sozializatu ez eta ondorioz, hizkuntza ikastera iritsi ez ziren hiztunak daude. Familia tipologia hori belaunez belauneko eten-jarraipena gertatu den herri euskaldunetan dira usuak. Hizkuntzaren gizarte galera-berreskurapen kintetan familiak gizarte guneez homogeneousak izaten dira, bertikalki —belaunik belaun— euskararen jarraipenaren haustura-josturak izan baitituzte edota horizontalki —belaunaldi berekoen artean— euskara dakitenak eta ez dakitenak egoten baitira (bikoteetan, adibidez). Aztertutako hamar familietatik zortzi dira euskaldun ez osoak, guztiak herrigunekoak. Familia horietan hiru belaunalditan euskararen transmisio etendura eta lotura historiak agertu zaizkit.

Aztertutako artean *familia euskaldun berriturik* ez dago eta ez dut informaziorik herrian badenik ere, berriki kanpotik etorritako familiaren bat ez bada. Izan ere, familia euskaldun berrituak, hau da, euskaldunak azkeneko belaunaldian baizik ez dituztenak, herri oso erdaldun(du)etan izaten dira arruntak.

Nire ustez, familien hizkuntza tipologiak Iruritan euskararen belaunez belauneko jarraipenari lagundu dio. Familia euskaldun ez osoetan euskarak bete ahal izan ditu belaunaldien arteko hutsarteak eta berriz *etxekotu*. Hori gertatu da Iruritan, "... berreskuratu dela galdu baino lehen" (Itsaso, 5. FG). Euskara berriz sartu den familietan mintzairak ahaideen arteko harremanak berrestekatu ditu. Hau da, euskarak, berriz *etxekotu* den kasuetan, familia euskaldun ez osoen belaunaldien arteko elkarreraginetan hartu du leku. Izan ere, familia euskaldun ez osoek duten ezaugarriarik aldekoena belaunaldien arteko hizkuntza lotura

**Iruritan bi
populazio gune,
“bi gizarte” (MG)
bereiziak ditu:
herrigunekoa eta
baserrietakoa.
Bizigune
bakoitzak bere
ekonomia eredu
izan du bai eta
bere bilakabide
soziolinguistikoa
ere.**

ahalbidetzea da. Horrelako familiak eten den hizkuntza segida berreskuratzeko egoera hobean daude familia euskaldun berrituak baino. Herrian familia euskaldun berrituak ohikoak izan balira ez dut uste euskararen jarraipenaren sendotzea hain nabarmena izanen zatekeenik. Hain zuzen ere, familia euskaldun berrituek duten gabeziarik larriena euskarak belaunaldien arteko loturarik egin ezin izatea da.

Familia euskaldun ez osoak hizkuntza aldetik bereziki heterogeneoak dira. Halako familietan hizkuntza ezagutzak eta erabilerak egoera erabateko, biribil edo beteetatik urrun dirudite. Aldiz, etxe-familia barneko hizkuntza portaera egonkorra eta homogenea balitz bezala hartu izan ohi da eta haren izaera askotariko eta, batzuetan, ez-osoari gutxitan erreparatu ohi zaio: “Ez zaio belaunez belauneko hizkuntza-transmisio familiarraren izaera partzial-fragmentario horri, lautatik hirutan, duen garrantzia ematen” (Zalbide 2009: 30).

Halako hizkuntza elkarbizitza heterogeneoa da Iruritako herriguneko familien artean usu kausitu dudana. Mintzaira aldetik familia den gizarte gune askotariko horretan batzuetan hizkuntza elkarbizitza formulak adostu behar izan dira, hizkuntza heterogeneotasuna nolabait kudeatu beharrez. Adibidez, egun bi haurren ama den Lola familia zabaleko kideen artean dagoen hizkuntza erabileraz (haurrek beren artean euskaraz, helduek hurrei euskaraz baina helduek beren artean erdaraz egiteaz) honela mintzo da: “Ikusten baduzu kanpotik erraten duzu, ‘jo! Batzuk erdaraz, bertzeak euskaraz’ baina (...) arras normala da (...) Guri ez zaigu deus raro iruditzen. Ia ohituren gauza da” (Lola, 4. FG).

Inoiz hitzunek familia barneko hizkuntza heterogeneotasuna tentsioz bizi izan dute. Halakoa gertatu da kide erdalduna familia euskaldunbeteetan sartu den bi kasutan: Antonio (6. FG) eta Gabriel (9. FG), biak erdaldun bakarrak emazteen familia euskaldunbeteetan. Lehen kasuan, Antonio, Iruñerriko ingurune eta familia erdaldunetatik Baztango familia euskaldun batera ezkondua, harrera familiara egokitu da kide erdaldun bakarra izateagatik bizipen deserosoa izan eta ondoan. Euskara ikasi du eta egun euskaraz aritzen da seme-alabekin. Bigarren kasuan, Gabriel, Iruritan sortua baina euskaraz ez dakiena guraso euskaldunak baditu ere, erdaldun bakarra da emaztearen familia euskaldunbeteetan. Andrearen familiarekin elkartzen direlarik emazteak tarteka erdaraz egiteko eskatzen die ahaideei senarra gaizki ez sentitzeko. Aipatu bi kasuetan modu oso desberdinetan kudeatu da familiararen hizkuntza heterogeneotasuna. Bi hitzun horiek, biak erdaldunak familia euskaldunbeteetan, oso desberdin jokatu dute eta horrek bere ondorioak ekarri dizkie familiararen hizkuntza elkarbizitzari eta haurren hizkuntza sociali-

zazioari. Gabrielelek emaztearen familia euskaldunbetean erdara sartu du; Antoniok aldiz, bere familia euskaldun ez osoa euskaraz bete eta familiaren barneko harremana euskaraz izaten jarraitzea bultzatu du.

Herrigunea eta baserriak

Iruritan bi populazio gune, “bi gizarte” (MG⁴) bereziak ditu: herrigunekoa eta baserrietakoa. Bizigune bakoitzak bere ekonomia ereduak izan du bai eta bere bilakabide soziolinguistikoa ere.

Bordetako iruritarrak nekazariak izan dira eta egun ere abeltzaintzari lotuta segitzen dute, nahiz eta batzuetan horrekin batera bertze jarduera ekonomiko bat izan. Hizkuntza aldetik karrika eta erreka hagitz desberdinak izan dira. Herriguneko gizarte bizitza erdaraz izan da; erreka familien bizimodua aldiz, euskaraz. Euskararen historia hurbilean maiz nabarmendu da baserrien garrantzia euskarari eusteko (Irigaray 1956, Estornés 1960, Sánchez Carrión 1972).

Aztertutako familien glotohistorietan bildutako datuen arabera, Gerra Zibilaren ondotik Iruritako karrikan hazitako belaunaldian, oraingo haurren aitatxi-amatxi gehienek ez dakite/zekiten ongi euskaraz. Batzuetan erdaldun hutsak dira/ziren, Mirenen ama adibidez, guraso euskaldunak izan bazituen ere:

... amak bizi guztia pasatu du (...) etxeko aferetan, ez da harremanatu jendearekin horrela. Orduan etxean giroa erdalduna zuten eta hortaz ez zuen deus, baina es que deus, deus ere ikasi. Eta osabek ezta ere (Miren, 3. FG).

Bertze batzuetan, aitatxi-amatxi horiek haurretan etxean euskara ikasi zuten baina orduko giro erdaltzaleak eraginda gaztetxotan gaztelaniara mintzaldatu ziren. Baten bat, ez erabiltzearen poderioz, lehen hizkuntza izan arren euskaraz mintzatzeko erraztasuna galdu eta *hiztun kamuts* edo *herdoildua* bilakatu da. Honela mintzo da 1945 aldean herrigunear sortutako M^a Luisa bere haur-gaztaroko Iruritaz:

¿En euskera? Nada, nada, nada. Todo en castellano. Fijate, los padres si nos hablaban en vasco nosotras contestábamos en castellano. (...) la cultura vasca no había nada, (...) y claro, las que sabíamos pues de no hablar... (M^a Luisa, 8. FG).

Espainiako Gerra Zibilaren ondotik, Francoren agintaldian indarra hartu zuen ideologiak bultzaturik, Iruritako herrian euskara baserritarrei lotzen zitzaien mintzaira zen, karrikan solastekoa ez zena. Honela min-

**Herriko
iruritarren eta
baserrietakoen
arteko bereizketa
ego
belaunderaino
iritsi da.**

**Seme-alabei
euskaraz egiteko
momentuan bi
gizaldiek ez zuten
berdin jokatu.**

tzo da bere gaztaroaz arestiko andrea: "... siempre en castellano, aquí siempre en castellano (...) si hablabas euskera pues eras un poco (...) bordari" (ibid: 30).

Errekako hurrek auzoko eskolan, Baigorriko eskolan, ikasten zuten eta ez ohi zuten harremanik izaten herriko ikasleekin. Oro har, karrikako iruritarren eta errekakoen arteko harremanak ez ziren usuak izaten errepideak eta ibilgailuak orokortu artio bederen. 1970 aldera baserrietako iruritarrek noizean behin baizik ez ziren hurbiltzen herrira erosketak egitera eta orduan euskaraz eginarazten zieten jada erdaraz bizitzera jarrita zeuden iruritar karrikatarrei. Honela oroitzen du Mirenek aitona-amona dendariez: "Nik aitatxi eta amatxiri bakarrik aditzen nien euskaraz baserritarrekin (...) dendan. Dendan bai aritzen ziren euskaraz baina etxean, sukaldean eta beti erdaraz" (Miren, 3. FG). Baserrietako iruritarrek, horietako anitz euskaldun hutsak zirenek, euskara eramaten zuten karrikara eta horrela herriaren erabateko erdalduntzea galarazi zuten tarteka herrikoei euskaraz eginarazten baitzieten.

Bilakabide soziolinguistiko oso desberdinak izan zituzten karrikaren eta errekaren artean euskara bereizketa seinale eta gutxiespen bide bihurtu zen. Herrian erdaraz egiten zen, hori zen araua eta, neketan ere horretara moldatu ezinean zebiltzan iruritar bordariendako irria eta trufak zilegi izaten ziren. Euskaragatik izandako bizipen mingarri horiek ondorioak izan dituzte subjektuen ondoko hizkuntza hautuetan. Erdara ez ongi jakiteagatik mesprezua jasan zutenek kostatzen ahala kostatzen seme-alabek erdara ikastea ziurtatu nahi zuten eta horretarako erdara hutsezko eskola hautatu zuten (euskarazko irakaskuntza inola ere nahi ez zutela), beren umeak gutxiespenetik babestearren.

Herriko iruritarren eta baserrietakoen arteko bereizketa ego belaunderaino iritsi da. Berriemaileen haurtzaroan errekakoen eta karrikakoen arteko harremanak oso bakanak izan ziren. Bakanak ez ezik, gatazkatsuak ere bai:

Orakunde egunean bakarrik [jaisten ginen herrira]. Eta orduan sentitzen ginen, bueno, baserritarrak baino baserritarrak, e. Egoten ginen baserrikoak multzo batean eta herrikoak bertzean. Ez ginen elkartzen ere (...) txikitan bereiztuak sentitzen ginen (Axun, 1. FG).

... el día de Orakunde, siendo yo crío, que ellos sí que bajaban aquí a comer al pueblo. Acabábamos siempre en gaita (...) estábamos todos juntos pero tú te ponías con los tuyos y ellos se ponían con los suyos (...) ellos todo en euskera y nosotros en castellano (...) no tratabas con ellos (Alberto, 10. FG).

Egun, aldiz, ego belaunaldiak txikitan bizitutako bereizketa hori gaindituztat ematen du: “Orain ez, orain ia [haurrak] etortzen dira herrira eskolara eta ia diferentea da” (Axun, 1. FG.). Iruritarrek euskarari gizarte jarraipena ematea hautatzean herria bereizten zuen bazterkeria irizpide bat deuseztatu dute. Oraingo iruritar gazteendako euskara/erdara ez da herritarren elkarbizitza bereizten duen dikotomia.

Herriguneko euskararen familia bidezko jarraipenaren etena

Iruritako Parrokiako Agiritegian Gerra Zibilaren ondotik herrian ospatutako ezkontzen⁵ datuak aztertu eta esposatu ziren ezkontideen jatorria ezagututa, bidea izan dut senar-emazteen jatorrizko hizkuntza ezagutzeko. Garai horretan Nafarroako euskararen hegoaldeko muga eta egoera (Irigaray 1956) zein zen kontuan hartuta, bi belaunalditako bikoteen hizkuntza osaera irudikatu ahal izan dut. Informazio horren arabera, oso antzekoak dira 1945 aldera esposatu ziren ezkontideen hizkuntza jatorria eta 1970 inguru ezkondu zirena: bikoteen % 67k senar-emazte euskaldunak zituen, % 30ek senarra erdalduna eta % 2-3k biak erdaldunak. Bi belaunaldietan emazte gehien-gehienak bertakoak ziren (euskaldunak zirenez ondorioztatzea zailagoa da, 1970 aldera ezkondu zirenak batik bat).

Halere, seme-alabei euskaraz egiteko momentuan bi gizaldiek ez zuten berdin jokatu: familien glotohistoriek erakutsi dutenez, 1945 aldera herrigunean hazitako haurren (oraingo aitatxi-amatxien) hamarretik lauk ikasi zuen euskara etxean; 1970 inguruan sortutakoen artean aldiz, hamarretik bat-bik baizik ez.

Hau da, oraingo aitona-amonek beren seme-alabekin (oraingo haurren gurasoekin) hizkuntza aldetik nola jokatu zuten aztertuta ikusi dut herrigunean bizi zirenek ez ohi zietela beren umeei euskara egin, nahiz eta aita-amak euskaldunak izan. Guraso bakarra euskalduna zen kasuetan, batean ere ez zuten seme-alabek euskara etxean ikasi. Hirrigunean hazitako iruritarrek honelatsu diote:

Haien [aita-amen] artean (...) edozein momentutan egiten zuten euskaraz ala erdaraz. Haiek hitz egiten zuten bietan. Baina gurekin beti ohitatuak erdaraz (...) Guk beti erdaraz, beti erdaraz gure artean, bai (Lola, 4. FG).

Berriemaileen lekukotasunek bat egiten dute Sánchez Carrionek deskribatu zuen egoerarekin. 1970eko hamarkadan familia bidezko hizkuntza transmisioa oro har etenik zegoen: “No se les enseña a los niños en el hogar” (1972: 117).

**Erdarazko
eskolak haurrak
erdalduntzen
zituen eta beren
adinkideekiko
sozializazioan
barneratutako
erdara azkenean
etxera ere
eraman zuten.**

**Eskolako
hizkuntza,
harreman
eszentrikoak
(adinkideen
artekoak) eta
familiakoak
(belaunaldien
artekoak) ez dira
hizkuntza
jarduera erabat
bereiziak.**

Ego belaunaldiaren haurtzaroa etxean, eskolan eta plazan

Oraingo haurren aita-amak 1970-1980 hamarkadetan hazi ziren erabat erdalduna zen Iruritako herrigunean: "... ez zela euskaraz solasten, ez eta etxean, ez eta kanpoan, ez eta eskoletan, ez eta inon" (Itsaso, 5. FG). Ego belaunaldiko iruritarrek herriko eskoletan ikasi zuten, herrigunekoek Errebote plazakoan eta baserrietakoek auzokoan, guztiek erdaraz. Bakar batzuek baizik ez zuten euskara ikasgai izan Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko azken mailetan.

Arestian azaldu bezala, herriguneko haur gehienek ez zuten euskara jaso guraso euskaldunengandik. Zeuden ume euskaldun bakanek gaztelania eskolan eta plazan bereganatu zuten. Erdara hutsezko eskolak ikasgelatik kanpo ere izan zuen eragina eta haurren arteko harremanak erdaldundu zituen. Haur euskaldunak erdaraz egitera ohitu eta ikaskideen artean bezala, anai-arrebekin ere mintzaira horretan hasi ziren. Ikasgelatik eta jostaldietatik eraman zuten azkenean haurrek hizkuntza etxera eta guraso batzuk, ordura artio euskaraz egiten zutenak, erdaraz egiten hasi zitzaizkien seme-alabei. Familia batzuetan, seme-alabak eskolan erdaraz hasi eta ondoan aldatu ziren haurrekiko hizkuntza portaerak, euskaraz egitetik erdaraz egitera. Hala bada, haurrek etxe barneko hizkuntza aldaketari eragin zioten, bertze herri batzuetan ere dokumentatu bezala (cf. Sánchez Carrión 1981 eta Iraola 2002).

1970-80 hamarkadetan herrian gizarte bizitza, plaza eta haurren jostaldiak erdaraz izaten ziren. Etxeko euskaldunak ziren haurrak erdararen arau sozialera doitu eta erdaraz hasi ziren beren adinkideekin eta, zenbait kasutan, etxeko helduekin ere. Beraz, eskolak Iruritako haurren hizkuntza portaerei eragin zien, haurren sozializazio *harreman eszentrikoak* (hau da, adinkideen artekoak: anaia-arreben, lehengusu-lehengusinen, ikaskideen, lagunen eta halakoen artekoak) ez ezik, zenbaitetan belaunaldien arteko harremanak ere erdarara mintzaldarazten:

Gu beti bizitu gara euskara, hori bai. Beti, beti, beti. Baina gero eskolatik ateratzen ginen... Nik ez dakit, erdara emate hori... lagunentzartean beti erdara. Koadrilan beti erdara (...) Zortzi urterekin, orduan bai aritzen ginen erdara. Eta ez dakit, eskolan erdara eman guelakoz (...) Dena, dena, dena (Arroxa, 2. FG).

Arroxa baino gazteagoak ziren ahizpak aldiz, euskaraz eskolatu ziren eta lagunekin euskaraz aritu izan dira beti. Hala bada, erdarazko eskolak haurrak erdalduntzen zituen eta beren adinkideekiko sozializazioan barneratutako erdara azkenean etxera ere eraman zuten. Orduan, gurasoek horren aitzinean jarrera desberdinak hartu zituzten. Zenbait gu-

rasok hurrek eskolaz kanpo erdaraz egitea ez zuten ontzat hartzen eta etxean erdararen aldeko hizkuntza aldaketa gerta ez zedin eragin zieten seme-alabei. Txikitako euskara atxiki duten oraingo aita-ama batzuek oroitzen dute mintzairari eusteko nolabaiteko giroa izan zutela familian. Gurasoek etxeko euskara erdarara ez aldatzeko eragin zieten seme-alabei, batzuetan erdararen erabilera garbi gaitzetsiz: "Hori bai erraten zigun gure amak, mintzatzeko euskara ere bai" (Arroxa, 2. FG). Auzo herrietan hazitakoen glotobiografietan ere gurasoen halako jarrerak agertu dira: "... erraten zuen amatxok 'zuek zarete belarrimotzak!'. Klaro! Igual haiek euskaraz solasten eta guk erantzuten erdaraz. Beti" (Ixa, 9. FG); "... aita haserretzen zen pila bat solas egiten bagenuen erdaraz (...) 'zer, ez dakigu solasean edo zer?' Klaro, gu eskolara joaten ginen erdaraz" (Nikolas, 3. FG). Haurren hizkuntza sozializazioaren aitzinean zenbait gurasok jarrera hau izan zuten: ez zuten eztabaidatu erdara hutsezko eskolatzea, ez eta seme-alabek erdara ongi ikasi beharra ere, baina haurren eskolaz kanpoko harremanetan eta bereziki, etxe barnekoetan, euskarari eusteko eta erdararako mintzaldaketa ez gertatzeko eraginkor jokatu zuten.

Bertze guraso batzuk, ordura artio euskaraz egin bazuten ere, erdaraz hasi ziren seme-alabekin. Kasu horietan etxean euskaraz egiten segitzeko gurasoen jarrera ez zen hain irmoa izan edo, bertzerik gabe, ez zen izan erdararen presioari aurre egiteko gauza. Horrelakoetan, zenbait kasutan, ego belaunaldiko haurrak lehen hizkuntza, txikitan gurasoengandik ikasitakoa, erabat edo neurri batean galtzera iritsi ziren:

Ama euskalduna zen eta euskaraz egiten zigun baina eskolan hastean, erdaraz hastean, amak erdaraz egiten zigun (...) eskola garai horretan galdu genuen, eta etxeko guztiak gainera (Laura, 7. FG).

Hala bada, eskolako hizkuntza, harreman eszentrikoak (adinkideen artekoak) eta familiakoak (belaunaldien artekoak) ez dira hizkuntza jarduera erabat bereziak. Haurtzaroko hizkuntza sozializazioaren prozesu zabalagoan txertatzen dira eta elkarri eragiten diote. Familiaren mintzairari dagokionez, gurasoen jarrerak funtsezkoa dirudi etxe barneko harremanetan euskara atxikitzeko.

Ego belaunaldiaren haurtzaroan herriguneko hainbat familian euskararen transmisioa etena zen, erdara hutsezko eskola zegoen eta plazako sozializazioan gaztelania zen araua. XX. mendearen hasierako hamarkadetan indarra hartzen hasia zen erdarak 1970-1980an berebera zituen karrika eta plaza, herritarren solasaldiak eta haurren jos-

**Euskara eskolan
sartzeak
berebiziko
ondorioak izan
ditu
hizkuntzaren
erabilera
ohituretan,
eskolatik kanpo,
familian eta
herrian.**

**Ego belaunaldiak
euskara ikasi eta
euskaraz hasi zen
mintzatzen
adinkideen
laguntzaz.**

taldiak. Herrian euskaldunak baziren, anitz gainera, baina berriemaileen lekukotasunei erreparatuta, Yrizarrek (1973) emandako portzentajeak (iruritarren % 90 euskaldun) gehiegixko dirudi.

Iruritako errekan aldiz, erdarazko eskolak ez zuen ez haurren arteko ez familien barneko hizkuntza harremana erdarara erakartzeko aski indarra izan euskara gizarte harremanetan sakonki errotuta baitzegoen.

Euskarazko eskolaren hastea eta bere ondorioak

Haranean euskara irakasbidea zuen irakaskuntza Elizondoko Baztan ikastolan 1970ean hasi bazen ere⁶, eskola publikoetan euskarak aise beranduago izan zuen sarbidea. 1980ko hamarkadaren erdialdean eskola publikoetan jarduten zuten maisu-maistra euskaldunak izan ziren, hein handi batean, irakaskuntza publikoan euskara sartze prozesuaren sustatzaile eta aitzindariak. Baztani dagokionez bildu dudanak erakutsi dit irakasleak izan zirela herrietako eskoletan euskara irakasbide gisa sartzea bultzatu zutenak eta prozesu horretan, anitzetan, guraso euskaldunen errezelo eta mesfidantzei aurre egin behar izan zietenak. Euskarazko irakaskuntzaren has-tapen horietan maisu-maistrek gurasoen kontrako jarrerak gainditu behar izatea “Baztango ia herri guztietan” gertatu zen (MEU⁷. Aipamen bertsua honetan dokumentatua: Elgoibar et al. 1987:147)⁸.

Iruritako eskolan euskarazko irakaskuntza 1990 aldera hasi zen. Beraz, ego belaunaldiak ez zuen aukerarik izan herrian euskaraz eskolatzeko. Dena dela, irakaskuntzan izandako aldaketa buruan dute. Mirenek dio “... hemen izan ziren istiluak eskolaren inguruan. Euskararekin izan ziren istiluak (...) Eta guraso aunitz euskararen kontra zirenak” (Miren, 3. FG). Arroxak gogoan du Iruritako eskolan euskarazko irakaskuntza hasi zelarik bakar batzuk baizik ez zirela matrikulatu: “Lau edo bost. Gutti apuntatu ziren euskara” (Arroxa, 2. FG). Izan ere, euskara eskolan sartzea ez zen gatazkarik gabeko prozesua izan.

Baztango herrietako eskoletako maisu-maistrek erdara hutsezko eskolak euskara abiada bizian galbidera zeramala uste dute: “Hori izan zen joera bat... galtzen ari zen” (Landa Koaderno [LK], 2010-10-03). Euskara eskolan sartzeak berebiziko ondorioak izan ditu hizkuntzaren erabilera ohituretan, eskolatik kanpo, familian eta herrian: “Eskolaren eraginez. Izan da gauza bat... ez dakit *bultzatu* den hitza, baina naturalagoa da”, “... egin dena da gelditu joera bat (...) arlo batzuetan sartu euskara”, “Joera zen erdaraz aritzea adin batekoak baina orain adin batekoak euskaraz aritzen dira. Joera hori aldatu da (...) gero, gurasoek estimatzen dute, ematen diote halako garrantzia euskarari” (ibid.). Eskolak herrian euskararen erabilera normaltzen lagundu du. Normaltze

horrek plaza, giroa... bai eta gurasoak ere ukitu ditu eta euskara galbidera zeraman joerari irauli zaio. Eskola euskaraz izatea onartu eta normalizatu da egun: "... gaur egun inork ez du planteatzen A eredia (...) nik uste aitzinamendu handia izan dela" (ibid.).

Euskarazko eskolaren eta etxeko hizkuntza erabileraren arteko el-karreragina hainbat lekukotasunetan agertu zaigu. Adibidez, Carlos eta haren anaia erdaraz eskolatu ziren orduan herriko eskolan ez baitzegoen euskaraz ikasterik. Carlos baino bederatzirte gazteagoa den arreba orde, euskaraz eskolatu ahal izan zen Irurritako eskolan. Aitak erdaraz egiten zien semeei baina alabari aldiz, euskaraz: "... el aita con mi hermana hablaba todo en euskera" (Carlos, 8. FG).

Berriemaileen ustez, euskara eskolan sartzeak hizkuntzaren egoera herrian, bai eta etxeetan ere, irauli du. Euskarazko eskolatzerik gabe batzuek ez dute uste etxeetan haurrak erdaraz hazteko ohitura aldatuko zatekeenik:

Eskola erdaraz baldin bazen ohitura ez zen aldatu izanen. Izanen zen segur aski berdina (...) eskolak lagundu du aunitz. Zure umea etortzen bada etxera euskaraz solasten, azkenean denak akitzen duzu euskaraz solasten. Hori argi dago (...) nahi dut erran, euskaraz haurrek bultzatzen dute (Itsaso, 5. FG).

Beraz, eskolak etxeko hizkuntza erabilerari eragin dio eta eraginbidetako bat haurrak berak izan dira.

Euskararen aldeko giro berria eta ego belaunaldiaren hizkuntza portaeren aldaketa

Berriemaileek 1990 urte inguruan herrian euskararen inguruan "aldaketa" bat gertatu zela nabarmentzen dute. Herriko eskolan euskara sartu zen —ikasgaitako (A eredia) nahiz irakasbidetako (D eredia)—, euskarak nolabaiteko gizarte ikusgarritasuna irabazi zuen eta orduko gazte (ego belaunaldiko) batzuek hizkuntza ikasteko hautua egin zuten. Segur aski, horretan zerikusia izan zuen egoera makrosoziologikoan, euskararen egoeran eta irudi sozialean, garai horretan gertatutako aldaketak. 1970eko hamarkadaren bukaera aldean Iruritan erdaldunei euskara irakasteko gau-eskola sortu zen, gero AEK Elizondon. Ego belaunaldiko subjektu batzuei gaztetan motibazioak eta aukerak bildu zitzaizkien euskararekin harreman berria eratzeko. 1980ko hamarkadaren bukaeran gazteak hasi ziren euskalduntzen:

... orduan jendea ari zena unibertsitatean hasi zen ikastaroak egiten eta orduan igual horregatik besteak ere hasi genuen ere bai ikasten edo, ez dakit

**Badirudi haurrei
zein**

**hizkuntzatan
egin erabakitzean
subjektuaren
lehen hizkuntza
baino
eraginkorragoa
dela hitzunak
eratu duen
hizkuntza
identitatea.**

**Bertzelako
familia estrategia
bada haurren
hizkuntza
sozializazioari
eragiten diona
nahiz eta
gurasoek
kontzienteki
hizkuntzari ez
lotu: haurren
zaintza.**

exactamente zergatik izan zen, o sea, inor ez zigun erran 'zoazte euskara ikastera!' (...) Hasi ginen erabiltzen bai, bai (Itsaso, 5. FG).

Ego belaunaldian zortzi guraso daude Iruritako herrian haziak. Zortzietatik bakarrak jaso zuen euskara txikitan gurasoengandik eta euskaldun hazi (Arroxa, 2. FG.). Gainerako zazprietatik lauk (Miren, 3. FG; Lola, 4. FG; Itxaso, 5. FG eta Laura, 7. FG) gaztetan euskara ikasi zuten, beren kabuz edo euskaltegian. Bertze hiruk (Carlos, 8. FG; Gabriel, 9. FG eta Alberto, 10. FG) ez dute ongi ikasi. Aita bat dago (Antonio, 6. FG), Iruñerrikoa baina Baztanera ezkondua, lehen umea izan eta ondoan euskara ikasten hasi eta orain bere hiru haurrekin euskaraz egiten duena.

Euskaldundu ziren ego belaunaldiko gazteek (neskek) hizkuntza ikasteko "kontzientzia", euskal kulturarekiko "maitasuna" (Miren, 3. FG), "nahia" eta "gogoa" (Laura, 7. FG) aipatzen dute. Subjektu horiek euskara ikastetik euskaraz mintzatzen hasterako prozesuan adinkideen laguntza eta eredia nabarmentzen dituzte. Hau da, euskararekin eratu zuten harreman berrian, euskaraz aritzen hasi zirelarik, anai-arrebak, lagunak, kirol taldekideak, bikotekidea... izan zituzten bultzatzaile. Mirenek eta Nikolasek erdaraz ezagutu zuten elkar baina biek "euskal arras kontzientzia" (Miren, 3. FG) izan baitute harremana euskarara aldatu zuten. Lolak bere ahizparen eredia eta mutil lagunaren bultzada hartu zituen: "... gizonarekin hasi nintzenezan pues hasi nintzen mintzatzen eta ya está. Eta gaur artio" (Lola, 4. FG).

Adinkideak eta, bereziki, bikotekidea ez ezik, umeak ere izan dira euskaraz aritzeko erraztasuna hartzeko laguntza. Ilobekin aritzeak lagundu zion Lolari euskaraz aiseago egiten eta gero bere umeekin mintzaira horretan jarraitzen: "... umeekin ere laxatzen zara gehiago" (Lola, 4. FG).

Ego belaunaldiak euskara ikasi eta euskaraz hasi zen mintzatzen adinkideen laguntzaz. Prozesu horretan zenbait kasutan, anai-arreben arteko edo belaunaldien arteko erabileraren bidez euskara etxean sartu zen. Hori nabarmendu du berriemaile batek, euskara etxekotzearen edo berriz etxera eramatearen garrantzia. Itsaso honela mintzo da: gaztetan euskara AEKn ikasi eta "orduan nire aita hasi zen nirekin euskaraz eta nire amatxi ere bai (...) harremana dena hasi zen euskaraz" (Itsaso, 5. FG).

Ego belaunaldiaren hizkuntza identitatearen eraketa

Ikusi dugunez, Iruritako herrigunean hazitako ego belaunaldiko guraso gehien-gehienak gaztelaniaz sozializatu ziren etxean, eskolan eta plazan. Ego belaunaldiko gurasoek txikitan euskararekin izan ez zuten

harremana garatu dute gazte-heldutan. Euskara gutxi-asko beren bizitzan sartu eta bere egin dute. Honela dio Itsasok: senargaiak euskaraz egiten zuenez “... ni segitu nuen euskara, euskara, euskara. Eta orduan ia nire hizkuntza bezala gelditu zen” (Itsaso, 5. FG). Euskarazko sozializazio berant eta jakinaren gainekoa izan dute. Antza, subjektuek beren lehen hizkuntza izan ez den batekin (batzuetan familian txertatuta egon den eta bertze batzuetan familian inoiz izan ez den hizkuntza batekin) eratzen duten harremanak hartzen du indarra. Hiztuna hizkuntza horri atxiki zaio hala nahi duelako, harremanen bidez bere bizitzan sartu baitu. Horrek ekarri die subjektuei, umeak izan dituztelarik, seme-alabak euskaraz hazteko erabakia. Badirudi haurrei zein hizkuntzatan egin erabakitzean subjektuaren lehen hizkuntza baino eraginkorragoa dela hiztunak eratu duen hizkuntza identitatea, hau da, zein hizkuntzarekin identifikatu nahi duen, zein hizkuntzari atxiki nahi zaion.

Rocher soziologoak sozializazioaren ingurumariko bitartekoak bereizten ditu: *grupo de pertenencia* eta *grupo de referencia*, hots, nor kide deneko taldea eta erreferentzia dueneko taldea, honela definituta: “... los medios a los que pertenecen o (...) los medios en los que se inspiran para llevar a cabo su obra de transmisión de modelos, valores y símbolos” (Rocher 1990: 158). Hau da, sozializazio eragile batek bere taldea (bere familia, bere komunitatea, bere jatorrizko hizkuntza...) izan dezake eredu ala, bertze kasuetan, bera kide ez den taldearen eredu eta balioak (bai eta hizkuntza ere) har ditzake eta horietan iradoki bere ekintza sozializatzailea.

Hernández García antropologoa euskararen transmisioaren gainean egindako ikerketa etnografikoan, aritzean edo jardutean —ez esentzian— oinarritutako identitatearen proposamenari lotu zaio: *identidad adquirida*, hots, bereganatutako identitatea.

La propuesta de una identidad adquirida —frente a la visión tradicional que se presenta como un fenómeno adscrito o asociado de forma natural— tiene consecuencias también en la forma en la que se expresa y manifiesta, proceso en el que la noción de performance adquiere una relevancia notable. Desde este tipo de postulados la identidad deja de ser una categoría o una suma de roles preexistentes (Hernández García 2007: 448).

Bereziki iradokitzailea gertatzen zait aribidean funtsatutako identitate modu hori. Ikusmolde horretan hizkuntza baliabidea da eta hizkuntzaren bidez subjektuek beren burua agertu eta komunitatearen barnean kokatzen dute.

**Nahiz eta
euskara hagitz
ongi jakin ez,
haurrei euskaraz
egitea da
iruritarrek
normalizat jotzen
dutena.**

**Azken urteotan,
hain zuzen ere,
haurrei sarriago
gatzelaniaz
aditzea
irakasleen kezka
bihurtu da.**

Ego belaunaldiaren jokabidea seme-alaben etxeko hizkuntza sozializazioaren aitzinean

Ego belaunaldia aita-ama bihurtu delarik, seme-alabekin aritzeko ez ohi du bere lehen hizkuntza hautatu. Gehienek (3. FGko Mirenek, 4. FGko Lolak, 5. FGko Itsasok, 6. FGko Antoniok, 7. FGko Laurak eta 8. FGko Silviak), neurri batean edo bertzean, euskara hautatu dute seme-alabekiko harremanetarako. Seme-alabak euskaraz hazi nahi izan dituzte hizkuntza hori adinkideekiko harremanetarako usu erabiltzen ez badute ere.

Beren seme-alabekin zein hizkuntzatan egingen duten hautatzen dutelarik erabaki hori ezin azal daiteke transmisioaren ideia mekaniko batetik. Egun ez zaigu baliagarria Erizek (1997) emandako azalpena, *habitus* kontzeptu soziologikoari lotua, ez eta Sánchez Carrionek (1981) proposatu zuen eredu dikotomiko eta —Galek (1978) jorratutako moldera— sexoglosikoa ere. Nire irudikoz, erabaki horretan subjektuek hizkuntzarekin eratu dituzten harremanek eta bereganatutako identitateak jokatzten dute.

Bi gurasoak familia euskaldunbeteoak diren kasuetan euskaraz egitea ohikoa zaie, jatorrizko familian ezagutu den hizkuntza erabilera baita (1. eta 2. FG). Kasu batean (3. FG), familia euskalduna osatu nahi izateagatik bikoteak bere harreman hizkuntza aldatu du, hizkuntza aztura aldatzea zaila izaten bada ere. Seme-alabak izan eta haiekin zein hizkuntzatan egin hautatzean, batzuetan euskaraz egitea berez heldu zen (3., 4. eta 5. FG). Bertze batzuetan haurren familia barneko hizkuntza sozializazioari lotutakoak (haurrei zein hizkuntzatan egin, etxean nola egin, gurasoen artean nola egin...) bikotekideen adoste edo negoziazio baten ondorioa izan da (7. FG). Lehen umea sortzeak seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean jartzen ditu gurasoak eta horrek dakarzkie hautu eta erabakiak. Alde horretatik, familia eratzea (haurrak izatea) hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenari eragiten dioten baldintza soziohistorikoen eta norbanakoaren hizkuntza bizipenen nolabaiteko *katalizatzaile*⁹ gisa agertzen zaigu. Gainera, seme-alabekiko harremana berritik eratzen dute gurasoek. Harreman horretan hautua ez dago ezein jatorrizko hizkuntza azturari estuki loturik eta hiztunak identitate berriari atxikitzea aiseago du.

Bertzelako familia estrategia bada haurren hizkuntza sozializazioari eragiten diona nahiz eta gurasoek kontzienteki hizkuntzari ez lotu: haurren zaintza. Aztertutako familien glotohistoria gehienetan amek aitek baino denbora gehiago eman dute hurrekin eskolatu baino lehenago. Hamar familietatik hirutan amek ez dute soldatapeko lanik egiten (zenbait kasutan bikoteak espresuki hala adostuta, andreak haurren kargu har zezan). Oro har, haurrak eskolatu bitartean etxean izan dira amen

edota amatxien kargu gehienetan (1., 2., 4., 5., 6., 9. eta 10. FGetan). Bi kasutan (3. eta 7. FGetan) amek lanaldi osoa baitute (maistrak dira) haurtzain euskaldunak kontratatu dituzte eta kasu bakar batean (8. FGn) haurrak Haur Eskolara¹⁰ eraman dituzte eta noizik behin amatxiz eta familiaz ere baliatu dira haurrak zaintzeko. Gutxiengo hizkuntza sozializazioaren alorrean amen egitekoa aitarena baina eraginkorra izatea bertze ikerketa batzuek ere nabarmendu dute (cf. Morris 2005).

Gauzak horrela, umeen zaintzaren ganean familiek abian jarri dituzten estrategiek ondorioak dakartzate haurren hizkuntza sozializazioan. Aztertu ditudan familietan ama bakarra dago (10. FG) euskaraz ez dakiena. Bertze guztiak euskaldunak dira eta seme-alabekin euskaraz egiten dute. Hau da, aztergai ditugun familien 25 haurretatik (1 eta 12 urte bitartekoetatik) 23k eskolan hasi baino lehenago, etxe eta familia giroan, gutxi-asko euskaraz aditu, hizketan ikasi eta mintzaira horretan eratu dituzte pertsona hurbil batzuekin edo guztiekin harremanak, nahiz eta zenbait kasutan etxe giroan gaztelania ere entzun eta hizkuntza hori ikasi.

Gizarteko hizkuntza ahula indarberritzeko saioetan egoera hori, gurasoen haurren zaintza neurri handi batean beren gain hartzea — beti ere mintzaira horretan aritzen badira—, lagungarri garrantzitsua zaio ondoko euskarazko eskolaldiari (Fishman 1990, 1997). Iruritarren belaunaldi berriek euskara oro har etxe eta familia giroan ikasten dute eta eskolan hasi orduko mintzaira horretan aritzeko gauza izaten dira (hala berresten dute Iruritan Ikastetxe Publikoak emandako datuek). Beraz, badirudi Iruritan amen parte hartzeak —eta familia estrategiak— umeen zaintzan positiboki eragin diola haurren euskarazko sozializazioari.

Bertzalde, oro har, gurasoen hautuek ondorioak izan dituzte familiaren bertze kideengan. Haurrei euskaraz egitea egokientzat eta naturalentzat ikusten delarik, haurra euskaraz eskolatu(ko) bada, aitatxi-amatxi euskaldunek ere euskaraz egiten dute (nahiz eta duela hiru hamarkada beren seme-alabei egin ez). Hau da, hiztunek haurren hizkuntza sozializazioaren gaineko hautuak soziohistorikoak dira, ez monolitikoak, eta hizkuntzaren egoera, pertzepzioa eta hizkuntzarekin eratzten diren harremanak aldatzen badira, alda daitezke, hainbat ikerlanetan agerian utzi izan den bezala: "...language use in the home is not stable, and many interviews report changes over time" (Lamarre & Rossell 2003: 68). Hizkuntzaren inguruko egungo giroak eta oraingo aita-amen erabakiek eragin diote segur aski aitatxi-amatxien hizkuntza portaera aldaketari. Izan ere, beren seme-alabek umeekin euskaraz egi-

**Haurraren
hizkuntza
portaerari
harreman
eszentrikoak uste
baino
erabakigarriagoak
zaizkiolakoan
nago.**

ten ez duten kasuan (10. FGn) aitatxi-amatxi euskaldunek ere ez dute bilobekiko hizkuntza portaera hain garbi aldatu.

Nire ustez, haurren hizkuntza sozializazioarekiko aitona-amonek izan duten portaera aldaketa hori, batez ere, haurren eta helduen arteko elkarreraginaren ondorioa da. Izan ere, ez helduek bakarrik, haurrek ere aktiboki jokatzan dute beren hizkuntza elkarreraginetan. Hala bada, belaunaldien arteko hizkuntza eraginaren norabidea nolabait adierazteko, goitik beheiti ez ezik behetik goiti ere badoala ikusi behar dugu. Belaunaldi desberdinetako subjektuek elkarriz eragiten diote, haurrak ez dira helduengandik datozkien hizkuntza eraginaren jasotzaile pasibo hutsak. Ez da egokia *transferentzia* eta *transmisioaren* kontzeptuek beren baitan dakarten adiera bertikala eta norabide bakarrekoa, goitik beheitikoa. Adibidez, Itsasok dio bera euskalduntzen hasi zen garaian bere ilobak Baztan Ikastolan hasi zirela. Orduan familiaren barneko hizkuntza erabilera aldatu zen bilobek euskara ekarri baitzuten aitatxi-amatxien etxera: "... euskaraz haurrek bultzatzen dute" (Itsaso, 5. FG).

Aitatxi-amatxien hizkuntza portaera aldaketa hori esanguratsua da hizkuntzak belaunaldiak lotzen baititu. Zenbait ikerketak ere (Behling 1996, Morris 2005) belaunaldi berriek hizkuntza gutxitua atxiki dezaten aitatxi-amatxien garrantzia bereziki nabarmendu dute. Fishmanek hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena familiaren baitan zurkaizten du, mintzaira hiru belaunaldien arteko ahozko elkarreragin informaletan adierazpide ohikoa delarik: "... Xish is the normal language of informal, spoken interaction between and within all three generations of the family..." (Fishman 1997: 92). Soziolinguista iparramerikarrak belaunik belauneko hizkuntza jarraipena mintzaira familiaren hiru belaunaldien arteko uztardura edo jostaria izatean funtsatzen du.

Alde horretatik, Iruritako hizkuntzaren gizarte erabileran *arau* bat bada nabarmena dena: haurrei euskaraz egiten zaie. Haurrekin erdaraz egitea "arraroa" da (Lola, 4. FG; Laura, 7. FG; Alberto, 10. FG). Nahiz eta euskara hagitz ongi jakin ez, haurrei euskaraz egitea da iruritarrek normaltzat jotzen dutena.

Hala ez delarik, hau da, gurasoek edota helduek haurrei erdaraz egiten dietelarik, ego belaunaldiari atentzioa ematen dio. Adibidez, Laurari "arraroa" egiten zaio bere senarraren bi anaiek, Elizondon bizi direnek, beren seme-alabei erdaraz egitea; "Ni hasieran harritua gelditzen nintzen (...) haurrei erdaraz. Zer pena!" dio (Laura, 7. FG).

Bertzalde, haurrak etxean erdaraz hasteari gurasoen gaitzespenak ohikoak dira. Antoniok aitortzen du seme-alabei noizbait erdaraz aditzen baldin badie ohartarazi egiten diela: "[Andoni]! Guk badakigu euskaraz!

guk badakigu euskaraz! (...) Eta beti ni nabil horrela” (Antonio, 6. FG). 7. FGko Daniel ere, euskara ez ongi jakin arren, haserretzen da alabek erdaraz egiten dutelarik: “... haserre jartzen da: ‘Bai, zer nahi duzue, ni bezala gero?’ Haserretzen da, bai” (Laura, 7. FG).

Haurren familia barneko hizkuntza sozializazioaren baldintzen atzean gurasoen mintzaira balioak daude (cf. Morris 2005: 4). Baina hizkuntzaren transmisioa ez du gurasoen nahi izate soilak ahalbidetzen. Hizkuntza sozializazioa gizarte jarduerak bermatzen du, ez gurasoen nahikari hutsak. Beraz, haurrekiko portaera hori hagitz esanguratsua da. Gurasoek beren nahikaria jarduera bilakatu dute, hizkuntzarekiko motibazioa aribide bihurtu. Hala bada, aita-amen hizkuntza balioak, horri loturiko jakinaren gaineko hautuak, erabakiak eta estrategiak garrantzizkoak dira baina haurren hizkuntza sozializaziorako funtsezkoa dena hizkuntzaz jardutea da, hizkuntzaren aribidea: mintzaira ohikoa, sarrikoa, ugaria, askotarikoa, hurbila... izatea.

Haurren hizkuntza portaera

Iruritako hurrek, oro har, euskaraz egiten ohi dute. Horretan bat datoz nire behaketak eta gurasoen iritziak. Eskolako maisu-maistrei ere hala iruditzen zaie: “Argi dago haurren hizkuntza naturala euskara dela, beraien artekoa” (M1¹¹). Halere, “batzuetan erdaraz aritzeko joera dute, batzuk beste batzuk baino gehiago” (ibid.). Azken urteotan, hain zuzen ere, hurrei sarriago gaztelaniaz aditza irakasleen kezka bihurtu da.

Baztango eskola txikietako maisu-maistrek marrazki bizidunak eta haur saioak beti erdaraz ikusteari egotzi diote azken urtean hurrei nabaritu dieten erdararako joera hori: “Gehienek telebista ikusten dute gaztelaniaz” (M2). Telebista erreferente eta eredu iturri eraginkorra da txikiendako eta telebista erdaraz ikusteak haurren hizkuntza erabilerari eragiten dio: “Hori izugarri nabaritu da. Patioan nabaritu da” (LK, 2010-10-03). Hurrek pantailako pertsonaiak gogoko izaten dituzte eta sarritan horien gainean aritzen dira solas-jolasean, bai eta haien mintzamoldeak beren joko sinbolikoetara ekartzen ere. Maisu-maistren iritziz, telebistak ematen dituen hizkuntza erreferentzia eta ereduak eragin handia izaten dute ikasleen hizkuntza erabileran. Gurasoek erruz aipatu dituzte hurrek telebista euskaraz ikusteko zailtasunak: “... lehen arras ongi ETB ikusten genuen baina orain puz *Disney Channel* eta *Clan* ikusi behar. Da pasada bat es que ez da beste aukera” (Itsaso, 5. FG)¹².

Telebistaren eraginaz gain, irakasleek hurrek gurasoengandik hartzen duten eredia aipatu dute. Azaldu bezala, Iruritako helduek hurrei euskaraz egiten diete baina bertze helduekin erdaraz egiteko ohitura

***Eskolak
funtsezkoa dirudi
hizkuntzaren eta
kulturaren
transmisorako,
ohiturei bizirik
eusteko eta
herria trinkotu
eta integratzeko
eragile gisa.***

edo joerak indarrean dirau: “Ikusten dutena da gurasoek euren artean eta dendetan erdaraz eta beraiei euskaraz” (M1). Horrek haurren hizkuntza portaerei eragiten diela garbi ikusten du eskolako zuzendariak:

Nik adibidez, Iruritara etorri nintzenean atentzio pila bat eman zidan haurrak jolasten zutenean dendetara jolasten zuten erdaraz eta beste gauza guztietara jolasten zuten euskaraz. Harrigarria! (...) Orduan deigarri-deigarria, zeren ez zuten apenas erdaraz hitz egiten eta ‘¿cuánto vale?’ (...) Nik ikusten nituen jolasten. Nik ez nien ezer esaten eta behin galdegin nien: ‘baina, zergatik egiten duzue erdaraz?’. ‘Es que dendetan erdaraz solasten da!’. Eta orduan Iruritan baziren bi denda eta bietan erdaraz egiten zen. Orduan nola ikasten duten jokoetan erabiltzen dute: ezin da saldu euskaraz. Gaur egun ez dute egiten ikusten dutelakoz dendetan euskaraz egiten dela, baina duela hamar urte bai, ez zutelako adibiderik (M3).

Hala bada, mintzairaz jabetzeko prozesua eta erabilera hizkuntzaren gizarte egoerari lotuta daude.

Neska-mutikoen arteko elkarrizketa arruntetan erdara gutxi aditzen da. Nire behaketetan hurrek Errebote plazan jostetan ari direlarik euskaraz egiten dute. Erdararen interferentziak esapideetan agertzen dira maizen. Erdararen sartzea jolasetan, joko formulatan eta jolasari lotutako esamoldeetan bereziki da nabariagoa: “¡A prisión!”; “Hala, venga, zu ere bai, ahí!” (LK, 2011-04-14). Badirudi oso handia dela jardueraren eragina, hau da erdarazko formulak eskatzen dituen joko batean aritzeak hurrei dakarkien hizkuntza erabilera.

Bertzalde, haurren hizkuntza portaeren eragingarrien artean adinkideen arteko elkarreragina ere aipatuko nuke. Hau da, hurrek beren mintzajardunean elkarri eragiten diote. Hizkuntza sozializazioaren izaera elkarreragileari lotua, transmisioaren gaineko ikerketek ez ohi dituzte behar bezala balioetsi adinkideen edo berdinen arteko elkarreraginak, soziolinguistikoki ezaguna izanda ere ingurune elebidunetan hurrek gurasoen mintzamoldera baino gehiago beren adin berekoen mintzairara doitzeko joera izaten dutela (Chambers 2003: 175-185, Barron-Hauwaert 2004: 57-59). Haurren arteko hizkuntza erabilerarako araua euskara da eta taldekideek nolabait elkar erregulatzen ohi dute arau horretara doitzeko. Haurren arteko elkarreraginetan hizkuntza eredia ematen diote elkarri. Ondoko adibidean ikusten da, antzara jokoan ari direlarik erdararako joera duen H mutikoak gaztelaniaz adierazi duena haur taldeak euskaraz erraten duela haren hizkuntza portaera euskarara erakartzen (LK, 2011-02-3):

H haurrak: —¡Que me toque dos! Ahora repito, ique me toque dos!

Taldeak: —Tokatzea bi!

Taldeak eta H haurrak: —Tokatzea bi! Tokatzea bi!

Adibide horren bidez igar daiteke adinkideen arteko eragina arrunt onuragarria izan daitekeela erdararako joera duen haurra euskarara hurbilarazteko. Hau da, taldekideen artean dagoen hizkuntza eredura edo araura doitzeko laguntzak, presioak eta egokierak izaten dira.

Etxean ere hizkuntza erabileraren erregulazioa gertatzen da, eta ez beti goitik beheiti, hau da, gurasoengandik seme-alabengana. Haurrek ere eragiten dute zuzenean gurasoen hizkuntza erabileran. Adibidez, Laurak eta Danielek osatu duten familian, haiek hala adostuta, haurrak etxean euskaraz egitera jarrita daude eta haserretzen dira gurasoei beren artean erdaraz aditzen badiete: "... gainera beraiek ere aunitzetan aritzen bagara [erdaraz] haserre ematen digute: 'egizazue euskaraz!'. 'Bai, bai, arrazoa duzu'. Eta aldatzen dugu" (Laura, 7. FG).

Azaldu dugu Iruritako haurrek hala elkarren arteko harremana nola helduekikoa euskaraz dutela. Horrek ez du erran nahi gaztelaniarekin harremanik ez dutenik. Eskolan euskaraz aritzen dira, eskolaz kanpo gehienetan ere bai, baina herriguneko kasu gehienetan erdara etxean berean aditzen dute, gutxi-asko. Halere, haur iruritarrendako gaztelania ez da usua, etxean entzunda ere: "Nireak behinik behin erdararekin dabilta nahiko... hor, kortatuak (...) edozein tiendan edo edozein lekuan Iruñean beti erdaraz eta jo igual aditzen dutenean norbait euskaraz pues alegatzen dira (...) ez dira laxatzen!" (Lola, 4. FG). Halako adierazpenek zer pentsatu eman beharko ligukete familiak *stricto sensu* haurren hizkuntza sozializazioan duen eraginaz. Haurraren hizkuntza portaerari harreman eszentrikoak uste baino erabakigarriagoak zaizkiolakoan nago.

Eskola eragile

Maisu-maistrak haurren eskolaz barneko nahiz kanpoko hizkuntza portaeraz eta kalitateaz arduratzen dira eta, horregatik, gurasoen hizkuntza ohiturak eta haurren kultura kontsumoa izaten dituzte kezkabide.

Baztango eskola txikietako maisu-maistrek, Iruritakoak barne, larritzeko modukoa deritzote haurren hizkuntza erabilerari. Irakasleek diote azken urteotan haurren euskara joan dela kaskartzen (joskera, erdarakadak...) baina aurten bereziki kezkatuta daude eta horren inguruan zerbait egiteko ari dira hausnartzen: proiektu bat, euskarazko pelikulak biltzen dituen DVDa... Hizkuntza txartze horren arrazoiez

**Hizkuntza
sozializazioa
prozesu
dinamikoa eta
baldintza
soziohistorikoei
lotua, ez
mekanikoa;
elkarreragilea, ez
norabide
bakarrekoa;
malgua eta
denboran
aldakorra, ez
monolitikoa.**

gogoeta egin dute: lehen telebista euskaraz ikusten zuten eta orain, aldiz, erdaraz ikusten dute; gurasoek eta bertze helduek erdaraz egiten dute... Iruritan eskolako maisu-maistrek oharra igorri zuten haurren etxeetara gurasoak horretaz ohartarazten eta internetetik marrazki bizidunak euskaraz jaisteko helbide elektronikoak ematen (LK, 2011-04-14). Honela azaltzen du eskolako zuzendariak:

... iaz ikasturte bukaeran horrela nabaritzen hasi ginen izugarritzko joera eta orduan gurasoei pasa genien internetetik jaisteko (...) pelikula zerrenda luze bat. Beste herri batzuetan badakigu guraso elkarteak ari direla bakoitza bat jaisten eta gero elkarren artean trukutzen (M3).

Beraz, eskola haurren hizkuntza portaeraz, hala eskola barnekoaz nola eskolaz kanpokoaz arduratzen da eta bere arazotako hartzen du. Eskolak gurasoei eragiten die eta haurren familia bidezko hizkuntza sozializazioan ere nabaria da bere itzala.

Eskolaren eragina herrira, komunitate osora ere zabaltzen da. Maisu-maistrak ohiturei eusteko —Orakunde besta zaharra bizirik atxikitzeke, adibidez— aktiboki inplikatzeko dira. Iruritan euskararen jarraipenaren aldera gertatutako aldaketari herriko eskolak modu aktiboan eragin dio. Eskolak funtsezkoa dirudi hizkuntzaren eta kulturaren transmisiorako, ohiturei bizirik eusteko eta herria trinkotu eta integratzeko eragile gisa (cf. Urla & Errekondo 2010).

Ingurune soziolinguistikoa

Iruritan bi guraso elkarteak, herrikoa eta eskolakoa, oso dinamikoak dira. Herrian antolatzen den gehiena guraso elkarteek antolatzen dute (Olentzero, Orakunde besta, inauteriak, kultura astea, gaztaina biltzeko ateraldia, gaztaina erreka jateko besta, txangoak, eskulan lantegiak, eskolako haurrendako jangela, eskolaz kanpoko jarduerak...). Horiek guztiak euskaraz izaten dira.

Bertzelako jarduerak ere euskaraz egiten ohi dituzte Iruritan haurrek, hala herrian bertan antolatzen direnak (dantza, pilota, judoa, mekanografia, trikitixa, panderoa, ingelesa eta katekesia) nola Elizondon eskaintzen direnak (igeriketa, futbola eta eskubaloia). Salbuespena Udal Musika Eskola da, euskaraz zenbait saio baizik ematen ez dituen.

Baztango eskola txikietako maisu-maistrek azken urteotan gurasoen jarrera aldaketa atzeman dute eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izateari ematen zaion garrantziaren inguruan: “Gurasoek ere ez zuten planteatzen garai batean. Ekintzak erdaraz baziren erdaraz ziren.

Kontzientzia hori badute eta eskatzen dute. Hori aldatu da, aldatu da. Batzuk bederen”, “lehenago berdin zitzaien. Erdaraz da, ba!” (LK, 2010-10-03).

Funtsean, hizkuntza aldetik, oraingo haur iruritarren haurtzaroak zerikusirik ez du beren gurasoenarekin. Euskara gutxi-asko beren egunerokotasunean dago eta gurasoei, oro har, haurrek mintzairari eustek axola die: “Nahiko nukeena bai da mantenitzea euskara beraiek ere bai gero handitzearekin segitzea mantentzen, porque azkenean hori da erakutsi duguna guk: mantenitzea” (Arroxa, 2. FG).

5. ONDORIOAK. EUSKARAREN JARRAIPENARI HELTZEKO EKARPEN BATZUK

I

Hizkuntza ordezkatzeko prozesuan amilduta zegoen Irurita herrian azken berrogei urteotan haurren euskarazko sozializazioa bermatzearen alde gertatutako aldaketa hizkuntza sozializazioaren paradigmatik aztertu dut eta marko teoriko baliagarria gertatu zait. Metodologia etnografikoa eta *glotobiografia* teknika ere egokiak eta emankorrak izan zaizkit.

Hizkuntza sozializazioaren paradigmak mintzairaren belaunez belauneko jarraipena gertakari holistiko eta osotzat hartzen du. Hizkuntza sozializazioa prozesu dinamikoa eta baldintza soziohistorikoei lotua da, ez mekanikoa; elkarreragilea, ez norabide bakarrekoa; malgua eta denboran aldakorra, ez monolitikoa. Sozializazio kontzeptuak gizarte erreproduzioaren eta transmisioaren ikusmolde ohikoek ikusezin utzitako hainbortze alderdi konplexu bezain sakon azaleratu eta horien arteko elkarreraginari erreparatzea ahalbidetzen du.

Iruritako landa ikerketak garbi agertzen du hizkuntzaren jarraipena baldintza soziohistorikoei lotuta badago ere, jokabide eredu finkorik ez dakarrela. Ez da prozesu mekanikoa ez eta oharkabea ere, subjektuen hautuek baldintzatua baizik. Iruritan egun hamabi urte bitarteko haurrak dituzten gurasoen artean hiztun batzuk izan dira euskara lehen hizkuntza izan ez baina beren seme-alabak mintzaira horretan haztea deliberatu dutenak. Haiek euskarazko sozializazio berant eta jakinaren gainekoa izan dute eta hortik etorri zaie, umeak izan dituztelarik seme-alabak euskaraz hazteko erabakia. Euskararen galera bizi izan dute beren familietan, herrietan eta mintzairari eutsi nahi izan diote. Gurasoek beren lehen edo jatorrizko hizkuntzaren arabera baino areago, jokoan dauden mintzaireri lotu dizkieten balioen arabera jokatu dute haurren hizkuntza sozializazioaren gaineko hau-

**Iruritan
baserriak eta
herrigunea
ditugu,
jarraipena eta
etena, baina
euskararen
jarraipenak
dikotomia horiek
berdinu ditu.**

tuak egiteko momentuan. Hizkuntzei balioak esleitze horretan batik bat hiztunaren barne atxikimenduek eta eratu duten hizkuntza identitateak eragiten dute.

Azterlanak haurren euskarazko sozializazioa bermatzeko gurasoen gaitasuna elementu erabakigarria ez dela izan iradoki du. Badirudi hiztunen nahiak eta portaerak gaitasun hutsak baino gehiago jokatu dutela seme-alaben euskarazko sozializazioaren alde. Ildo horretatik, bi alderdi eragingarri agertu zaizkit: hizkuntza aribide bihurtzearen garrantzia eta jarduera hori harroin hartzen duen identitatea, gaitasuni soilik lotzen ez zaiona.

Nire ustez, Iruritan euskararen belaunez belauneko jarraipena berrozartu ahal izan da, neurri handi batean, herrian nagusi diren familia tipologiei esker: *familia euskaldunbeteak* beserrietan eta *familia euskaldun ez osoak* herrigunean. Biek belaunaldien arteko hizkuntza segida lotzea ahalbidetu dute.

Belaunaldi berriak hizkuntza ahulean sozializatzeko familiarren eta ingurunearen eragina, jakinaren gainekoa, eskatzen du. Gurasoen jarrrerak, erabakiak eta estrategiak funtsezkoak dira baina euskarazko sozializazioaren atzean hiztun taldearen eta bere erakundeen (eskolaren, elkarten...) harreman sareak eta lan pedagogiko osoa daude.

Hizkuntza sozializazioa, goitik beheitik harremanetan gauzatzen den gertakaria izan beharrean, bi ardatzetan (bertikalean nahiz horizontalean, hau da, belaunaldien artean eta adinkideen artean) gertatzen diren elkarreraginetan funtsetan da. Nire ustez, belaunaldi berekoen arteko elkarreraginak, *harreman eszentrikoak*, dira hain zuzen ere Iruritako egoera soziolinguistikoaari baikor begiratzeko bide ematen duen alderdia. Iruritarren belaunaldi berri bat bada —aspaldiko partez— euskaraz hazten ari dena eta elkarren artean euskara harreman hizkuntza ohikoa duena.

Belaunaldi baten hizkuntza sozializazioan familiak *stricto sensu* ustez duen erabateko eragina lausotua agertzen da. Prozesuak familiarren gunea gainditzen du eta ezin da bere testuinguru soziohistorikotik bereizi. Etxetik kanpoko eragingarrien indarra ere kontuan hartzekoa da. Alde horretatik, egun inoiz baino konplexuagoak dirudite maila makrosoziolinguistikoen eta mikrosoziolinguistikoen arteko harremanek. Hala bada, familiara mugatzen den ikerbideak edo hizkuntzaren transmisio informala eta formala bereizten dituenak nekez erantzun diezaioke hizkuntza sozializazioaren gertakariari.

Iruritako landa ikerketan euskararen belaunez belauneko jarraipena eta etena batera agertzen zaizkigu. Hausturak eta loturak daude espa-

zioan nahiz denboran. Espazioari dagokionez, euskararako hutsarteak agertzen dira: baserri euskaldunaren aldean herrigune erdaldundua. Denborari dagokionez, belaunaldietan hizkuntza etendurak azaltzen dira. Iruritarren kasuan, euskararen gizarte jarraipenak herria bera osatu du, herritarren integrazioari lagundu dio.

Lan honen hasieran planteatu dudan galderari erantzuna emanez, Iruritan euskararen belaunez belauneko jarraipenaren sendotzearen atzean herriaren beraren osaketa ikusi dut. Aztertu dudana euskararen bidez gizarte haustura gainditu duen komunitatea da. Iruritan baserriak eta herrigunea ditugu, jarraipena eta etena, baina euskararen jarraipenak dikotomia horiek berdindu ditu. Azken lau hamarkadetan Iruritan euskararen jarraipena sendotu da iruritarrek mintzairaren bidez espazioan hausturak josi eta denboran etendurak lotu nahi izan dituztelako. Beretzenaz, Txepetxek 1970ean iragarri bezala, berak entzundako haurrak hondarreko iruritar euskaldunak izanen ziratekeen.

Akitzeko, adierazi nahi dut azterlan hau zabalagoa den eta oraindik erabat burutu gabe dudan doktore tesiaren zatitxo bat dela. Hala bada, hemen eman ditudan emaitzak ez dira oraingoz behin betikoak. ●

BIBLIOGRAFIA

- APPEL, R. & MUYSKEN, P. (1987/1996). *Bilingüismo y contacto de lenguas*. Barcelona: Ariel.
- ARRUTI, I. (1997). Euskararen familia bidezko jarraipena. *Bat soziolinguistika aldizkaria* 22/23, 69-110.
- BARRON-HAUWAERT, S. (2004). *Language Strategies for Bilingual Families. The One-Parent-One-Language Approach*. Clevedon-Buffalo-Toronto: Multilingual Matters.
- BEHLING, G. (1996). La transmission de la langue et de la culture occitanes. Deux études sur les motivations et les contradictions de la transmission culturelle dans la région Languedoc-Roussillon. *Lengas, Revue de Sociolinguistique* 41, 7-93.
- BLANCHET, PH. (2000). *La linguistique de terrain. Méthode et théorie. Une approche ethno-sociolinguistique*. Rennes, France: Presses Universitaires de Rennes.
- CHAMBERS, J. K. (1995/2003). *Sociolinguistic Theory* (2. argt.). Oxford, New York: Blackwell Publishers.
- CHRISP, S. (2005). Māori intergenerational language transmission. *International Journal of Sociology of Language* 172, 149-181.
- DORIAN, N. (1981). *Language Death: The Life Cycle of a Scottish Gaelic Dialect*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.

- ELGOIBAR, E.; ZUBIZARRETA, B. & GAMINDE, I. (1987). *Euskararen galera Nafarroan (1587-1984)*. Iruñea: Pamiela.
- ELORTZA, X., MUNGIA, A., GOIKOETXEA, N. & PIKABEA, I. (2009). Euskararen transmisioa familia bidez indartzeko tailer pilotua Burretaldean. *Bat soziolinguistika aldizkaria* 71, 165-176.
- ERIZE, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa. 1863–1936. Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- ESTORNÉS, B. (1960). Área lingüística. In Zenbaiten Artea, *Geografía histórica de la lengua vasca*, I (9.-29. or.). San Sebastián: Auñamendi.
- EUSKO JAURLARITZA (2005a). *Euskararen erabilera eta transmisioa: Olabide ikastolako (Vitoria-Gasteiz) ikasle ohien adibidea: 2004ko iraila*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2005b). *Euskararen erabilera eta transmisioa: Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien adibidea: 2005eko otsaila*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2008). *EAEko euskararen belaunez belauneko transmisioa. 2001*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- FASOLD, R. (1984/1995). *The Sociolinguistics of Society*. Oxford, New York: Blackwell Publishers.
- FELLIN, L. (2002). Language ideologies, language socialization and language revival in an Italian Alpine community. *Texas Linguistic Forum* 45, 46-57.
- Sarean: <<http://studentorgs.utexas.edu/salsa/proceedings/2002/papers/fellin.pdf>>
- FISHMAN, J. A. (1964). Language maintenance and language shift as fields of inquiry. *Linguistics* 9, 32-70.
- (1965/2000). Who speaks what language to whom and when?. In Wei, L. (arg.), *The Bilingualism Reader* (89.-106. or.). London, New York, Holt: Routledge.
- (1990). Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan. In Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, *Euskal Eskola Publikoaren lehen kongresua / Primer congreso de la escuela Pública Vasca*, 1. lib. Ponentziak eta komunikazioak (181.-188. or.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1991/1997). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- GAL, S. (1978). Peasant men can't get wives: language change and sex roles in a bilingual community. *Language in Society* 7 (1), 1-16.
- (1979). *Language Shift: Social Determinants of Linguistic Change in Bilingual Austria*. New York: Academic Press.

- GARRETT, P. B. & BAQUEDANO-LÓPEZ, P. (2002). Language Socialization: Reproduction and Continuity, Transformation and Change. *Annual Review of Anthropology* 31, 339-361.
- GRAN ENCICLOPEDIA NAVARRA (11 liburuki) (1990). Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra.
- HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M. (2007). *Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Ministerio de Cultura.
- IRAOLA, J. (2002). *Familia bidezko jarraipena. Pasaiaiko udalerriko azterketa. Lehen zatia: ikerketa kokatzeko oinarriak. Bigarren zatia: Pasaiaiko udalerriko azterketa*. (2 lib.). Txosten argitaragabea.
- IRIGARAY, A. (1956). Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935. *Euskera* I, 41-46.
- JAUREGI, P. (2009ko maiatza). Oinarrizko taldeak eta euskara: bihotzaren arrazoiak. Udaltop euskara-zerbitzuen I. topaketetan aurkeztutakoa. Lasarte-Oria. Txosten argitaragabea.
- JAUREGI, P. & SUBERBIOLA, P. (2009). Hizkuntza aldaketa bikoteen harremanean: ikuspegi teorikoa eta ikerketaren ondorioak. *Bat soziolinguistika aldizkaria* 71, 177-191.
- JONES, H. M. (1995). Mother Tongue Welsh Speakers and Welsh Speaking Couples. Sarean: <<http://www.byig-wlb.org.uk/English/publications/Publications/1394.pdf>>
- (2008). The Changing Social Context of Welsh: A Review of Statistical Trends. *The International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 11. lib., 5, 541-557.
- JONES, K. & MORRIS, D. (2009). Issues of gender and parents' language values in the minority languages socialisation of Young children in Wales. *International Journal of the Sociology of Language* 195, 117-139.
- KULICK, D. (1992/2004). *Language Shift and Cultural Reproduction. Socialization, self, and syncretism in a Papua New Guinean village*. Cambridge, United Kingdom: Cambridge University Press.
- LAMARRE, P. & ROSSELL, J. (2003). Growing up Trilingual in Montreal: Perceptions of College Students. In Bayley, R. & Schecter, S. R. (arg.), *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies* (62.-80. or.). Clevedon: Multilingual Matters.
- LARRAÑAGA, I. (1986). La situación del euskera en el ámbito familiar: investigaciones realizadas y en proyecto en relación con la transmisión familiar del euskera. San Sebastián: Siadeco.
- LUYKX, A. (2003). Weaving Languages Together: Family Language Policy and Gender Socialization in Bilingual Aymara Households. In Bayley,

- R. eta Schecter, S. R. (arg.), *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies* (25.-43. or.). Clevedon: Multilingual Matters.
- MACKINNON, K. & MACDONALD, M. (1980). *Ethnic Communities: The Transmission of Language and Culture in Harris and Barra*. School of Social Sciences. The Hatfield Polytechnic.
- MARTÍ, F. et al. (2005). *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- MORRIS, D. (2005). End of Award: Welsh Language Socialisation within the Family. Report for the Economic & Social Research Council, RES 000-22-0611.
Sarean: <<http://www.esrc.ac.uk/my-esrc/grants/RES-000-22-0611/outputs/Read/1aab3729-b599-4ecd-a417-dbb39f31a5cb>>.
- MORRIS, D. & JONES, K. (2008). Language socialization in the Home and Minority Language Revitalization in Europe. In Duff, P. A. and Hornberger, N. H. (arg.), *Encyclopedia of Language and Education*, 2. argt., 8. lib. (2699.-2715. or.). Boston: Springer Science+Business Media.
- NEKVAPIL, J. (2003). Language biographies and the analysis of language situations: on the life of the German community in the Czech Republic. *International Journal of Sociology of Language* 162, 63-83.
- NELDE, P.; STRUBELL, M. & WILLIAMS, G. (1996). *Euromosaic. Producción y reproducción de los grupos minoritarios de la UE*. Luxemburgo: Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas.
- Ó RIAGÁIN, P. (2001). Irish Language Production and Reproduction 1981-1996. In Fishman (arg.), *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective* (195.-214. or.). Clevedon: Multilingual Matters.
- OCHS, E. & SCHIEFFELIN, B. B. (1984/1992). Language acquisition and socialization. Three developmental stories and their implications. In Shweder, R. A. and LeVine, R. A. (arg.), *Culture Theory. Essays on Mind, Self and Emotion* (276.-320. or.). United States of America: Cambridge University Press.
- (2008). Language socialization: An Historical Overview. In Duff, P. A. and Hornberger, N. H. (arg.), *Encyclopedia of Language and Education*, 2. argt., 8. lib. (2580.-2594. or.). Boston: Springer Science+Business Media.
- OTONDO, A. (2003). *Diccionario histórico biográfico del Valle de Baztán (Navarra)*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- PEASE-ALVAREZ, L. (2003). Transforming Perspectives on Bilingual Language Socialization. In Bayley, R. eta Schecter, S.R. (arg.), *Lan-*

- guage *Socialization in Bilingual and Multilingual Societies* (9.-24. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- ROCHER, G. (1973/1990). *Introducción a la sociología general*. Barcelona: Herder.
- SAGARDOY, P. (2008). EAEko euskararen belaunez belauneko familia bidezko transmisioa (2001eko biztanleriaren zentsuko datuak oinarri hartuta). *Bat soziolinguistika aldizkaria* 67, 103-116.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M^a (1972). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*. Pamplona: Institución Príncipe de Viana, Diputación Foral de Navarra.
- (1981). La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka). Estudio Antropolingüístico de una Comunidad Euskaldun. *FLV* 37, 19-99.
- (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las Lenguas*. San Sebastián: egilearen argitalpena.
- SCHIEFFELIN, B.B. & OCHS, E. (1986). Language Socialization. *Annual Review of Anthropology* 15, 163-191.
- SIADeco (1994a). *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa*. Lehen txostena (Siadeco [1978] eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia [1991] ikerketetan bildutako datuen arabera). Txosten argitaragabea.
- (1994b). *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa*. Bigarren txostena (1991eko zentsuko datuen arabera). Txosten argitaragabea.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, TOPAGUNEA & URTXINTXA (2009). *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua. Emaitzen txostena*. Sarean: <<http://www.soziolinguistika.org/files/GazteenHizkuntzaErabileranEragitenDutenFaktoreenAzterketa.pdf>>.
- UNESCO (2003). *Language Vitality and Endangerment*. Document adopted by the International Expert Meeting on UNESCO Programme Safeguarding of Endangered Languages. Sarean: <<http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001836/183699E.pdf>>.
- URLA, J. & ERREKONDO, J. (2010). Zerain.com: Cultural landscape as a framework for integrating sustainable economic futures, heritage and language preservation. Sarean: <http://works.bepress.com/cgi/viewcontent.cgi?article=1001&context=jacqueline_urla>.
- VALLÉS, M. S. (1997). *Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional*. Madrid: Síntesis.
- VILA, F. X. (1993). *Transmissió dels idiomes en les parelles lingüísticament mixtes*. Barcelona: Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura.

- WEI, L. & MOYER, M. G. (arg.) (2008). *The Blackwell Guide to Research Methods in Bilingualism and Multilingualism*. USA-UK-Australia: Blackwell Publishing.
- WILLIAMSON, R.C. (1991). *Minority Languages and Bilingualism: Case Studies in Maintenance and Shift*. Norwood: Ablex Publishing Corporation.
- YIN, R.K. (1984). *Case Study Research; designs and methods*. London: Sage.
- YRÍZAR, P. (1973). Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca. Estudio lingüístico-demográfico. *BRSVAP* 29, 3-78.
- ZALBIDE, M. (2009). Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE-saioretan. Udaltop euskara-zerbitzuen I. topaketetan aurkeztutakoa. Lasarte-Oria. Txosten argitaragabea.
- ZENBAITEN ARTEAN (1960). *Geografía histórica de la lengua vasca*. (2 lib.). San Sebastián: Auñamendi.
- ZINKUNEGI, J. F. (1995). Euskararen transmisioa Euskal Autonomi Elkartean. *Bat soziolinguistika aldizkaria*, 15, 75-88.

OHARRAK

1. Euskaraz, *transmisio* hitzaz gain, honako hauek erabili izan dira gertakari hori izendatzeko: euskararen *jarraipena* (Eusko Jaurlaritza 1995, Arruti 1997, Iraola 2002), hizkuntza komunitatearen *ugalketa* (Erize 1997) eta euskara *ondorengoetaraztea* (Eusko Jaurlaritza 1999).
2. Iruritako landa ikerketa egiteko beren denbora eta informazio baliagarria eman dizkidaten pertsona anitzekin zordun naiz. Hala bada, esker mila Iruritako ikastetxe publikoko maisu-maistrei, Eskolako eta Herriko Guraso Elkarteetako aita-amei, herriko apezari eta, oro har, Irurita herriari.
3. Iruritako kasu azterketa azaltzeko emanen ditudan izenak ez dira berriemaileen eta haien ahaideen benetako deiturak pertsona horien anonimotua eta pribatutasuna babestearren. Bertzalde, berriemaileen mintzoak arau estandarrez idatzi ditut baina haien ahotik bildutakoak gramatikalki zuzenak izan ez direlarik bere horretan utzi ditut, zuzendu gabe.
4. MG: Martin Garde berriemaile aditua.
5. Gure gizarte tradizionalan ezkontza izan da populazioaren sorkuntza arautu duen erakundea.
6. Kontuan hartzen ez badugu 1935etik 1936ra, Gerra Zibila hasi artio, Elizondoko Ikastolaren ibilbide laburra.
7. MEU: M^a Eugenia Urrutia berriemaile aditua.
8. Ikastolen mugimenduan aldiz, gurasoak izan ziren sustatzaileak eta ekintzaileak eta irakasleen laguntzaz, beren seme-alabak euskaraz hezteko proiektua gogo irmoz gauzatu zutenak. Eremu formaletik baztertuta eta ia etxe barneko erabilerara mugatuta zegoen hizkuntza gutxituaren transmisio, eskolan sartze edo estatus aldatzearen inguruan hizkuntza komunitateko kideen jarrera ezberdinak izan ziren: bazterketa bereganatu eta hizkuntza nagusiaren aldera jo zuten batzuek eta bazterketaren aitzinean erresistentzia jokaerak agertu zituzten bertze batzuek. Behlingek okzitanieraren transmisioaren gainean dioenez, akulturazio prozesuetan hiztunen jokaera ezberdin horiek agertu ohi dira: "... le refus de transmission à la génération suivante ou la résistance au changement sont deux phénomènes que nous rencontrons, semble-t-il, dans tous les cas de ce tipe d'acculturation" (1996: 59).

9. Kimika arloan *katalizatzailea* erreakzio jakin bat gertatzea laguntzen duen elementua da.
10. Baztango Haur Eskola Elizondon dago. Udal zerbitzua da eta euskaraz aritzen dira haurrekin.
11. M1, M2 eta M3: Iruritako eskolako maisu-maistrak.
12. 2010ean gertatu zen itzaltze analogikoaz geroztik, Nafarroan ezin da ETB Lurreko Telebista Digitalaren (LTDren) bidez hartu eta lehenagoko molde analogikoan segitzen da ETB1 eta ETB2 ikusten. Gainera, ETBk LTD bidez baizik ez duen ematen ETB3 haurgazte kate berria sortu zuen eta harrezkero euskarazko haur programazioa ETB1etik ETB3ra pasatu zuen. Nafarroarako bereziki haurrentako telebista baten ikuskizun uzten badute ere ETB1ean, ez da duela urte batzuk zegoen haurrentako eskaintza. Bitartean, haur eta gaztetxoendako erdal telebista kateak berretu eta telebista eskaintza ugaltu da: *Clan, Disney Channel...*